

ARGIA

LABORARIEN PROTESTAK

Agroindustriatik ateratzeko beharrak eta trabak

12-15. orrialdeak



2.859 | 2024 / 02 / 18 | 4,00 €




**Israel zer den
ulertzeko
gakoak**

24 | NAZIOARTEA



**"Katalana literaturan
ezin da lehiatu
gaztelaniarekin"**

36 | JÚLIA OJEDA



**GIBaren estigma apurtu
eta ezagutarazteko
antzezlanak**

46 | 'KANPORA SARTZEN'

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

IRABAZI ETA GALDU

LARRUN #293
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

Jokin Altuna eta Iñaki Artola
elkarrizketan



ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **MATHILDE CYBULSKI / HANS LUCAS**

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | HIRUKI LARROXA
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | LAURA PENAGOS

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



26 | ISRAEL ULERTU, SIONISMOA BORROKATZEKO

Zigor Olabariak sionismoaren kontakizuna aletu du: historia ulertzeko eta palestinarrek zanpatzeko oinarritzat dituzten mitoak zein diren, judutarren artean egin izan dituzten mailaketak eta izan dituzten barne eztabaidak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | NET HURBIL

Laborantza ereduaren auzia dugu laborarien ongiezaren oinarrian

Jenofa Berhokoirgoien

16 | PERTSONAIA | YULIANA ORTIZ RUANO

“Emakumeei eta diferentziei ez digute balio kontakizun heroikoak”

Danele Sarriugarte

32 | HISTORIA | MISSAK MANOUCHIAN

Euskal partiano komunistak nazien kontra

Etxahun Galparsoro

36 | HERRIALDE KATALANAK | JÜLIA OJEDA

“Globalizazioaren oldarraldi handiei aurre egiteko diskurtsoak falta zaizkigu”

Cira Crespo

46 | KULTURA | “KANPORA SARTZEN” ANTZEZLANA

“Zuen bizitzan lehen aldiz, herrian ikusiko duzue GIBa”

Mattin Azpiroz

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mattin Azpiroz,
Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuzá

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enpresekin batera:


 KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



 software
productions

Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitara
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Ez da behe-lainoa, gu gara

Lahoren ia bi hilabete daramatzate eguzkia ikusi gabe. Baina ez dago lainotuta. Neguko hilabeteetan txapel batek estaltzen du 13 milioi biztanle dituen Pakistango hiria. Munduko hiririk kutsatuena izatearen prezioa. Zenbait egunetan, atmosferaren kutsadura-balioa OMEk gomendatutakoa baino 70 aldiz handiagoa izatera heltzen da. Konfinamenduak ohikoak dira konjuntibitisa ez hedatzeko. Hegazkin txikiek izotz lehorra eta zilarrezko ioduroa zabaltzen dituzte "euri artifiziala" eragiteko. Duela aste batzuetatik pneumonia eta bronkitis izurritea dute. Jendearen garraio pribatua (kotxeak-eta) da batez ere poluzioaren eragile nagusia. Asiako hegoaldean, aire zikina da lehen heriotza-kausa, desnutrizioaren, tabakismoaren edo hipertentsioaren aurretik. Horren ondorioz, ia 2,2 milioi pertsona hiltzen dira urtean. Bizitza modernoaren aurrerakuntzak dakartzan albo kalteak, omen.

 A. ALI / AFP  AXIER LOPEZ



Emakume bat atxilotu eta inkomunikatuta eraman dute Iturmendin

ERREDAKZIOA

Espainiako Poliziak otsailaren 6 eguerdian atxilotu zuen bere etxean, Iturmendin (Nafarroa), antza sare sozialetako mezuren batekin lotuta. Arratsean segundo batzuetako deia egin zien senideei Madrileram eramatzen zutela jakinarazteko, ARGIAk jakin zuenez. Estefanía Cerverak 63 urte ditu eta senarra zena urte luzez egon zen espetxean.

Atxiloketa eta ordu batzuetara telefono dei bat jaso zuen alabak, eta adierazi zieten haien ama atxilotu zutela. Hala ere, ez zieten eman bestelako informaziorik, ez nork egin zuen atxiloketa, ez zergatik eta ez non zegoen.

Unai Otermin alabetako baten senarrak ARGIAri jakinarazi dionez, alabak amaren etxera gerturatu zirenean, telefono mugikorra lurrean eta janaria eginda aurkitu zuten: “Egiten ari zen dena bertan behera utzi izan balu bezala zegoen, desagertu izan balitz bezala. Atxiloketa erabat surrealista izan da”. Espainiako Poliziara deitu zuten eta ez zieten inolako informaziorik eman.

Iruñeko Chinchilla Jeneralaren kaleko Espainiako Poliziaren egoitzara joan ziren ondoren ea han zegoen galdetzeraz, baina han ere ez zieten ezer baieztatu. Hala ere, jaso

egin zieten senideek eramandako amaren medikazioa. Azkenean, arratsean, amak berak hamabost bat segundo iraun zuen telefono deia egin zien alabei, eta jakinarazi zien atxilotu zegoela eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz Madrileram eramango zutela.

Antza denez, “terrorismoa gortzea” leporatzen diote, sare sozialetan egindako iruzkinen bati lotuta. Otermin suhiak salatu du “hau esku-bide urraketa ikaragarria” dela eta ulertezina dela nola gerta litekeen horrelako atxiloketa bat molde horretan, halako akusazio bat egiteko halako atxiloketen beharrik ez dagoenean: “Estefaniaren iritzia askatasuna ere urratu da”.

Egun bat geroago utzi zuten aske fidantzarik gabe, eta hamabost eguneroko aurkeztu beharko du Iruñeko epaitegian. Europa Press albiste agentziaren arabera, UPNk jarritako salaketa bati lotuta dago atxiloketa, Cerverak sare sozialetan egindako iruzkinen batean ustez “terrorismoaren gorazarre” egin izanari.

Auzi honi lotuta, jakin izan da, halaber, A Coruñan beste emakume bat ere atxilotu dutela akusazio berdintsuekin, eta hura ere libre geratu dela, baina epaitegira hamabostero aurkezteko aginduarekin. ●



Euskaraz ikasteko eskubidea aldarri

MIKEL GARCIA IDIAKEZ



Euskal Herriko 16 ikasle Parisen izan ziren otsailaren 6an. Euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu eta horretarako neurriak har ditzatela eskatu zieten diputatuei, Frantziako Legebiltzarrean. “Urduri gaude, baina badakigu zer erran nahi dugun”, adierazi zioten ARGIAri Etxepare Lizoko eta Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioko ikasleek. Korsika, Okzitania, Alsazia eta Britainiako ikasleek ere hizkuntza eskubideen aldeko aldarria egin zuten.

Frantziako Estatuko bost lurralde horietatik iritsitako 42 ikasleek ekintza sinbolikoa egin zuten Hezkuntza Ministerioaren aurrean: mozala zuen ikasgela bat irudikatu zuten. Ondoren, lurralde bakoitzetik ikasle banak legebiltzarrean hitz egin zuten, Tokiko Hizkuntza eta Kulturen ikerketa taldeko diputatuen aurrean.

Frantziako konstituzioaren 2. artikulua aldatzeko eskatu zuten ikasleek, alegia Frantziako Errepublikako hizkuntza bakarra frantsesa dela dioen artikulua. Hizkuntza gutxituen egoera kezkarria dela eta “Estatuak hizkuntza hauek kokatu dituen prekarrietatik ateratzeko” benetako estatusa bermatzea beharrezkoa dela adierazi zuten, ofizialtasuna aldarri. Hizkuntza hauek bizirik mantendu daitezen, baliabide gehiago ere behar dituzte: “Estatuak gure hizkuntzaren irakaskuntzarako bideratzen dituen baliabideak hutsaren hurrengoa dira”.

Santi Lazkarayk hartu zuen hitza legebiltzarrean, Euskal Herriko ikasleen ordezkari gisa. Baxoa eta brebeta euskaraz pasa ahal izatea aldarrikatu zuen. “Kexu gara, ezin ditugulako azterketak gure ama-hizkuntzan pasa. Euskaraz ikasten dugu, baina gero frantseseg egiten behar ditugu azterketak, horrek dakartzan zailtasunekin. Gure borroka helarazi dugu”. ●

Daiteke



UXUE APAOLAZA LARREA

Gertatzen diren gauzak gerta daitezkeenak dira. Horrela esanda ergelkeria bat dirudi, baina, orduan, hori baldin badakigu, ergelak guk ematen dugu, ez? Alegia, gauza batzuek hain dirudite auresangarriak gertatu ondoren (eta aurretik: Banku Zentralak tipoak igoko dituela noizbait, adibidez). Hala ere, denok gara errugabeak gertatu arte, eta, gero, tira, gertatutakoan erraza da ondorioak ateratzea, baina, esaten dugu, lehenago ezin zen jakin, lehenago, beti gerta baitzitekeen beste zerbait. Adibidez, eduki dezakezu gizonez betetako elkarte batean emakumezko garbitzaile arrazializatu bat gaueko ordu txikitan lanean, inolako protokolo edo babesik gabe, eta pentsatu garbitzaileak ez duela erasorik jasango, eta bat salatu arte itxoin, ziur asko, azken hori ez baita inoiz gertatuko, izan ere, gerta daitezkeen gauzak baino ez dira gertatzen. Beraz, ez zuen zertan gertatu.

Eta behin gertatzen direnean, adibidez, genozidio bat, harritu egiten gara zein heinetan geunden prestatuta bat jasateko. Pantailan. “Nola da posible?”. Zergatik ez? Ez da bakarrik posible, da eztabaidagai, da ikuspuntuaren arabera, da, are, dantza egiteko modukoa, musika jaialdietan...

Gertatzen diren gauzak ez baitira soilik gerta daitezkeenak, baitira gerta daitezen uzten ditugunak, beldurra besteen hezurretatik geuretara igaro ez dadin. Beldurra ez da txarra berez. Beldurra oso txarra da botereak kudeatzen digunean. Beldurra atzeratzen edo aurreratzen digute nahi duten moduan. Beldurra paranoikoa izan daiteke, baina badakizue, paranoiko izateak ez du esan nahi arrazoi ez duzunik. Ia beti. ●



Kartzela

Preso bat hil da Zaballako espetxean. Eusko Jaurlaritzak espetxeen transferentzia bere gain hartu zuenetik, duela bi urte eskas, laugarren heriotza izan da euskal kartzeletan, hirugarrena Zaballako espetxean. Hildakoa bigarren mailako erregimenean zegoen.

Eraso matxista

Altsasuko kirol elkarteak salatu du emakumeen taldeak sufritutako erasoa: entrenamendu amaieran, “persona bat edo gehiago” argazkiak edo bideoak egiten saiatu zen aldagelako leihotik; gero ihes egin zuten. Foruzaingoaren esku utzi dute salaketa.

Heriotza

Gorka Setien Berakoetxea poemagile hernaniarra hil zen otsailaren 4tik 5erako gauean. Bost liburu idatzi zituen eta irrati libreteko ahotsa izan zen. 2019an autoedizioan argitaratu zuen bere poema liburu berriena, *Naufraگوen altzoa*.

Traktoreak hirian



ULA IRURETAGOIENA

Arto zelaietan aise eta trebeki mugitzen den traktorea hiriko pasealekuetan agertzeak irudi-txoke bat ekartzen du, lekuz kanpo dagoen gailuak bere dotorezia eta indarra galtzen du hirian, orpo altuko zapatek mendialdean pasean ikustean galtzen duten bezalaxe. Traktorearen hirialderako ibilbide aldaketak beraz, ongi funtzionatzen du aldarrikapen irudi gisa, bere ibilkera motelak hiri barneko trafikoan sortzen duen kausa tarteko. Traktoreak hirietan dauden turismo handienekin konparatuta ere, handi ikusten dira kaleetan, baina handitasunak ez dio azkartasunik ematen turismo handienekin gertatzen den bezala, ez eta segurtasun handiagorik ere. Ibilgailuen arteko funtzio desberdintasunak zeozer kontatzen dute bi errealtateen artekoari buruz (hiria eta landa), baina ez diote "haiek" eta "gu" komunitateen sailkapenari erantzuten, biek osatzen baitute osotasun baten parte, traktorearen hiriko presentziak arrotza den eta urruti dagoen errealtate batekin talka egiten badu ere. Traktore gidariak ere kaleko zapatak erabiltzen dituela esan nahi da.

Elikagaien prezioak garesti direlako kexu gara hirian, eta traktoreen mezuetan berriz esaten da, prezio duinak nahi dituztela ekoizleentzat. Ematen du norgehiagoka ez dela hiri eta traktore artean jokatzeko, komertzio tratuetan baizik, beste dimentsio batean alegia. Elikadura osasuntsu eta jasangarri baten alde aldarrikapena egiteko ez dugu traktorerik behar eta seguruenik azoka da horretarako leku, supermerkatua baino gehiago. Onartu dezagun behingoz sagarraren ekoizleen lana korbatadunaren parera eraman behar dugula, horretarako sagarraren prezioa duin eginaz. Hori esanik ere, elikagai osasuntsuak eskuratzeko aukera poltsiko handiek bakarrik posible izatea kezkarria da. Esango nuke, poltsiko txiki askoren arazoa ez dela sagarraren prezioa, etxearen prezioa baizik. Eta orduan hasten da traktoreen auzia hirien errealtate gordinarekin elkarriketa gertuan. ●



GASTEIZHOY.COM

Kaletarra traktoreei begira

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Traktoreek errepideak hartu dituzte eta kaletarrok interpelatuta sentitu gara, aspaldiko partez. Zer ari zaizkigu esaten? Gehiago ezin diotela eutsi, herritarrontzat elikagaiak sortzen dituztenak bizi ezinik daudela. Aitor Aranburuk esnea eta haragia ekologikoan lantzen ditu eta ARGIAren *Egonarria* saioan azaldu zuen gizarte honek aukeratu egin beharko duela, ea laborariekin zer egin: "Etorkizunera begira eztabaida sozial bat emateko beharra dago, nolako den gure nekazaritza, nola sortzen ditugun elikagaiak eta nola kontsumitzen ditugun. Hiru alternatiba daude: bat da gaur egungo garapen eredu honekin jarraitzea; bigarrena da elikagaien teknologia deitutakoa, hau da, nekazaririk gabeko elikagaien sorkuntza, janari artifiziala alegia, batzuetan bakterietatik abiatuta eta bestetan ama zeluletatik. Eta hirugarren bidea da leku bakoitzeko kulturari eta beharri lotuta ekoiztea". Kaletarrok bat egin behar dugu laborariekin etorkizunaz erabakitzeke, zeren eta ez da haien ofizioa bakarrik, guztion eguneroko janaria da, eta biharko Lurra da.

Errepidera traktorerik handienak atera dituztenek orain arteko ereduarekin jarraitu nahi dute, elikagaien industriarekin alegia, baina laborariak hilabete bukaerara iritsi daitezen neurri batzuekin: adibidez, pestizidak erabiltzen jarraitzeke aukerarekin. Unzalu Salterain EHNE Bizkaiako koordinatzaileak *El Saltoko* elkarrizketan biribil azaldu du bai laborariei eta bai kaletarrei oparotasunaren ilusioa saldu dien eredu honen iruzurra: "Merkatu librearen laborantza politikak porrot egin du: jada ez dago elikadura merkerik kontsumitzailearentzat". Noiz arte jarraitu behar diegu laborariak itotzera, herritarrok kaka jatera eta Lurra kutsatzera eraman gaituzten ereduari eta agintariei? Handiago, gehiago, azkarra, merkeago logikak ekarri gaitu hona. Laborantza eredu hori eta kontsumitzeko modu horiek dira klima larrialdiaren eragile nagusietakoak.

Laborariak eta Lurra aldi berean ari zaizkigu herriari deika. Guztiok, baita kaletarrok ere, etorkizunean ongi biziko bagara, bi korapiloak askatu behar ditugu batera, bi gaiak harilkatuta baitaude mataza berean: Lurrarekin errespetuzkoa den laborantza eredu eta kontsumitzeko moduak bultzatzea dagokigu, laborariak eta kaletarrak elkartuta. Laborariak egon behar dute trantsizio ekosozialaren erabakiguneetan. Eta bai, noski, laborariak behar ditugu gure herrian: askoz gehiago egun daudenak baino, bakoitza askoz traktore txikiagoarekin, eta lan baldintza duinekin. Horretan zergatik ez diru publikoa inbertitu? Laborariak eredu industrialera bultzatzeko gastatu den bezainbeste edo gehiago inbertitzea dagokigu, makroetxaldeen agroekologiara trantsizioa egin dezaten. Herritarrok plazerez egin dezakegun ekintza zuzena, laborariei zuzenean edo zirkuitu laburretan erostea da: azoka, kontsumo talde eta denda txikiak bizitzea. Kaletarron bizimodua eta baserritarrena txanpon beraren bi aldeak baitira. ●

140

eragilek elikadura burujabetzan oinarritutako politikak eskatu dizkiote Nafarroako Gobernuari. Besteak beste, abeltzaintza industrialari moratoria ezartzea eta 2030erako ekoizpen intentsiboa %50 txikiagoa izatea nahi dute.

14.000

euroko isuna eskatu dute gazte batentzat, iazko azaroaren 3an egindako protesta baten harira: PSOEren egoitza aurrean mobilizatu ziren, sionistak Palestinan egiten ari diren sarraskia salatzen.

3

Goya sari irabazi ditu 20.000 *especies de abejas* filmak: zuzendari hasi berri onenarena eta gidoi onenarena (Esti Urresola), eta aktore onenarena (Ane Gabarain).

“Pestizidek ez dute laborarien egoera hobetuko, haien osasuna okertuko baizik”

ALICE LEIZIAGEZAHAR

EELV Europa Ekologia-Berdeak alderdiko kidea.

EUSKAL IRRATIAK (2024-02-08)



“IRUÑEKO APARTAMENTU TURISTIKOEN ERDIA ALDE ZAHARREAN DAGO”

Iruñeko Alde Zaharreko Alde Zahar ekimenak turismo masiboaren aurkako eta auzoaren defentsarako kanpaina abiatu du.

2024-02-08

“Euskararen aurkako estrategia judizial eta politikoari erantzun behar diogu”

AGURNE GAUBEKA

Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendaria. Hainbat eragilerekin batera, salatu du Zizurko Udalaren obretako langile lanpostu baten euskarazko profila atzera bota duela epaileak.

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-02-08)



Adinekoentzako Nafarroako lehen etxebizitza kolaboratiboa

AINARA RODIL JAIME

25 etxebizitza eraikiko dituzte, eta baratzea eta zerbitzu komunak izango dituzte. Eraikina Etxekide kooperatibak eraikiko du, Nafarroako Gobernuaren babesarekin, eta Iruñeko Udalak lursail bat utziko du proiektua eraikitzeko. Bizitegi-proiektua 65 urtetik gorakoentzat izango da, 2026rako amaitzea aurreikusi dute eta proiektuaren inbertsio osoa 4,5 milioitik gorakoa izango da.

"Kalkuluen arabera, 2037an 70.000 pertsonak 80 urtetik gora izango dituzte Nafarroan, eta gaur egun 41.000 dira. Hori dela eta, Foru Gobernuak ikusi du elkarlaneko etxebizitza-eredu berriak edo 'cohousing' delakoak abian jartzea erraztu behar dela", dio Carmen Maeztu Eskubide Sozialetako kontseilariak. Eredu komunitario autogestionatua dela azaldu dute, non pertsona guztiek erabakiak, erantzukizunak eta zereginak partekatzen dituzten, eta, aldi berean, erabiltzaile bakoitzaren independentzia eta intimitatea mantentzen diren.

Carlos Rey Etxekideko idazkariak azaldu duenez, "gure kooperatiba pertsona askok dugun motibazio batetik sortu zen, bakarrik etxean edo egoitza pribatu batean hil nahi ez izatek. Gure bizitzako azken etapa konpainian partekatu nahi dugu, familiaren edo lagunaren menpe egon gabe, eta ahalik eta autonomia handienarekin. Eta bizitzeko modu hori posible izateak motibatu gaitu. Herrialde askotan arrakasta duen etxebizitza eredu kolaboratiboa da".

Reyren arabera, etxebizitza guztiek tamaina bera izango dute, 52 metro koadro gutxi gorabehera. Gune eta zerbitzu komunitarioak izango ditu: sukaldea eta jantokia, jarduera-gelak, garbitegia, areto soziosanitarioak, liburutegia eta elkarguneak.

Sartzeko interesa duten pertsonen 18.500 eurotik gorako diru-sarrera gordinak izan beharko dituzte urtean. Hileko oinarrizko kuota 530 eurokoa izango da, gehi 115 euro beste gastu batzuetarako. ●

NAZIOARTEA


Israelen bonbek eremu populatuena suntsitzea dute helburu


Gazaren aurkako erasoak urriaren 7az geroztik

Gazako biztanleriaren dentsitatea (2020)



ITURRIAK: THE GUARDIAN ETA ARAB NEWS





Eskolako jolastokian, mutilak jaun eta jabe

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Urtebetez, jolas garaian Lehen Hezkuntzako neska-mutilen mugimenduak behatu dituzte Kataluniako bi ikastetxetan. Espazioaren gehiengoa mutilek okupatzen dute eta neskek bazterretan mugitu ohi dira. Ikerketak hainbat gogoeta utzi du espazioaren antolaketaz, genero rolez... eta futbolaz.

“Eskoletako jolastokien erdigunea haur fisikoki aktibo eta indartsuek okupatu ohi dute, gehienak mutilak (kolore urdinez irudikatuta), eta hain aktibo ez direnei periferiatan uzten diete mugitzeko espazioa, batez ere neskek (gorriz irudikatuta). Errealitate hori are agerikoagoa da futboleko oinarritutako espazioak diseinatzen direnean”. Hala dio Architektoniczki arkitektura kooperatibak erakutsi duen azterketak. Bertan, generoaren arabera banatuta ikus daiteke haurrek espazioaren zein erabilera egin duten jolastorduan. Behaketa bidez jaso dituzte mugimendu horiek irakasleek.

Inor gutxi harrituko da emaitzarekin, jakinik bai genero rolek bai espazioaren diseinuak eragina dutela errealitate

horretan. Helduek ezarritako arauetatik askeago, autonomoki mugitzeko eta jolasteko espazioak dira eskoletako patioak, eta gizartearen estereotipo eta patrioi asko erreproduzitzen dira.

Batetik, neskek ez dute ohiturarik erdigunea hartzeko, eta bestetik, erdigunean futbol zelaia baldin badago, erabat baldintzatzen du patrioko dinamika. Durangoko Kurutzia ikastolan, ikastetxeko kanpo-espazioa eraldatu zuten eta horren eraginaz mintzatu zitzaizgun Haizea Egiarte: “Zer egin dute Kurutzian? Futbola ezin dugu kendu, baina gutxienez mugitu egingo dugu, bazterrean lagako dugu (futbol-zelaia lekuz mugituta), eta sokasaltoan ibili nahi dutenek ez dute zertan iskin batean aritu, margotu nahi dutenek ez dute zertan bazterrean egon, zergatik ez jarri patio erdian halakoak egiten? Neskek sentitu dezatela jolastokia euren ere badela eta jolastokiaren erdian jardun dezaketela. Gizartearen, festetan... emakumeok badugu joera bigarren planoan egotekoa, protagonismoa gizonen izatekoa, txikitatik hala izan delako, baina haurtzarotik neskek ikasten badute erdigu-

nea beraiena ere badela, zentralitatea har dezaketela, indarra hartzen joango dira etorkizunean esateko ‘ni hemen nago eta lehen planoan nago’”.

FUTBOLAREN ORDEZ, PATINAK

Espazioa aldatzeak eta adibidez erdigunera futbola ez bestelako jarduerak ekartzeak eragiten du neskek zentralitatea irabaztea, baita neska-mutilak errazago nahastea ere. Futbol-zelaia bazterrean eraman ordez, zuzenean asteko egun batzuetan futbola debekatzea erabaki duten ikastetxeak gero eta gehiago dira: baloirik gabeko egunak dira, futbol-zentrismoa gairatu eta bestelako jolasak, ekintzak eta dinamikak bultzatzeko. Architektoniczki erakutsitako esperimentu honen harira, esaterako, irakasle batek kontatu du euren ikastetxean, astean bi egun ezin dela futboleko jokatu, eta erresistentziak eta protestak handiak izan zirela hasieran, baina patinak, patineteak eta antzerakoak ateratzen dituzte gainerako hiru egunetan, eta segituan bihurtu da ekimen arrakastatsua, neska-mutilen parte-hartze handiagoarekin eta orekatuagoarekin. ●

LABORANTZA EREDUAREN AUZIA DUGU LABORARIEN ONGIEZAREN OINARRIAN

Euskal Herria, Grezia, Herbehereak, Alemania, Espainiako eta Frantziako Estatuak, Italia... Europa mailakoa da laborarien azken aste hauetako protesta. Ongiezak eta kexuak akuilaturik, zabalduz doa mugimendua. Dela kostatu zaiona baino merkeago saldu beharra ekoizpena, dela konkurrentzia desleiala, dela burokraziak galdeturiko betebeharren karga, hamaika arrazoi dituzte karrikara ateratzeko. Oinarri bera dute, halere, hamaika gaitzek: Bigarren Mundu Gerraren biharamunean abiatutako nekazaritza eredu produktibista. Muturreraino eraman da eredu agroindustrial eta bere mugak agerian dira. Alta, sistema bera ez dute zalantzan jartzen laborarien ordezkariak. Alderantziz, eredu horrekin segitu ahal izateko, ingurumenaren aldeko neurrien deuseztatzea dute galdatzen.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Azken asteetan Europa mailan zabalduz doazen laborarien protestek agerian utzi digute krisi sakona bizi duela lehen sektoreak. Sindikatu baten zein bestearen eskakizunetatik edota talde asindikalen aldarrietatik irakurketa bateraturik ezin bada atera, guztientzat balioko lukeen ondorio argi batera menturatu gaitezke: Bigarren Mundu Gerraren biharamunean abiatutako nekazaritza eredu produktibista muturreraino eraman da eta parez pare ditu bere mugak. Egiatzapen horrek alde guztien oniritzia baldin badu ere –beti ere, fede txarrekoak alde batera utzirik–, auzia korapilatzen da krisiaren iturburuei eta eman beharreko aterabideez aritzerakoan.

Ipar Euskal Herriko eta Frantziako Estatuako FNSEA eta JA sindikatuak blokeoak bukatzeko manua emana duten honetan eta Hego Euskal Herriko eta Espainiako Estatuako laborariak protestan dabiltzala, argi gelditzen ari da

krisiaren arrazoieta jartzen direla Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) eta laborariei errenta duinik bermatzen ez dien merkaturak. Frantziako Gobernuak eta orokorrean Europako Batzordeak kexuari emandako erantzunak ikusirik, negoziazio mahaian jartzen dena argitu zaigu: agroindustriarekin elkarrezina den trantsizio ekologikoari bidea moztu nahi zaio.

Agroindustriaren bultzatzaileak dira FNSEA eta JA sindikatuak eta botere politikoa haien alde dutela, satisfos atera dira negoziaketetatik: 2030erako pestiziden erabilpena %50 gutitzea helburu zuen Frantziarako Ecophyto Plana etetea lortu dute. Ingurumenari dagozkien arauak errespetarazteko ardura duen Bioaniztasunaren Agentzia independentea estatuaren meneko jartzea ere eskuratu dute. Berdin-berdin, agroindustriako *lobby*-en itzala ageri zaie Espainiako Estatuan abiatutako Whatsapp talde asindikalen aldarrikapenei –garapen iraunkorraren alde doan Agen-

da 2030 deuseztatzea, ingurumenaren alde doazen NPBren baldintzak leuntzea, tartean, lur eremuaren %4 lugorri uzteko betebeharra–.

Euskal Herria, Grezia, Herbehereak, Alemania, Espainiako eta Frantziako Estatuak, Italia... Europa mailakoa dugu mugimendua eta Europatik ere norabide bereko erantzunak datoz: pestiziden erabilpena 2030erako %50 apaltzeko neurria bertan behera utzi du otsailaren 6an Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidentea eta lur eremuaren %4 lugorri uzteko obligazioa deuseztatzea ere azkarki aipatzen dute Bruselan.

France Culture-n *France, Allemagne, Pays-Bas: haro sur le Pacte Vert Européen* (Frantzia, Alemania, Herbehereak: Europako Itun Berdea jomugan) irratsaioan ondokoa dio IDDRI Nazioarteko Harremanen eta Garapen Iraunkorraren Institutuko ikerlari Pierre-Marie Aubertek: "*Green Deal*-a (Itun Berdea) dugula [herri ezberdinetako laborarien]

LABORIEN ONGIEZA Milaka eta milaka laborari elkartzen ditu azken asteetan loraturiko mobilizazioak. Direla agroindustriaren aldeko sindikatuek deituriko hitzorduak, agroekologiaren alde dabiltzanek finkaturikoak, zein talde asindikalek antolatuturikoak, karrikara ateratzeko hamaika ekimen daude Europako hainbat herritan, tartean, Euskal Herrian.



FNSEA

haserrearen izendatzaile komuna? Baliteke. *Green Deal*-a dela laborarien zailtasunen arrazoia? Hori ez". Male-ruski, horrela aurkeztua zaigu krisia eta araberako erantzunak jasotzen dabilta. Funtsean, agroindustriaren aldeko lobbygintza besterik ez dugu. Eta ez da berria. Iazko abenduaren 10eko *Lobbygintza toxiko bat dago glifosatoa baimentzeko Europaren erabakiaren gibelean* erreportajea gai bera genuen aipagai eta orduan ez zegoen traktoreen errepide mozketarik.

Aldi honetan, ordea, laborarien ondoeza eta desesperazioa xurgatu dituzte presio taldeek eta horretan datza *mainstream* komunikabideek gorderik atxikitzen diguten boteretsuen joko zikina. Begi-bistakoegia ez izateko gisan, etxaldeko egoera ekonomikoa doi bat hobetzeko neurri batzuk lortzen dabilta –NPB dirulaguntzen banaketaren lasterragotzea eta berehalako dirulaguntza ezohikoen bermea, besteak beste–.

“Europaren Itun Berdea dugula herri ezberdinetako laborarien kexuaren oinarrian? Baliteke. Europako Itun Berdea dela laborarien zailtasunen arrazoia? Hori ez”

Pierre-Marie Aubert

Jukutria horretaz oharturik, laster lotu ziren laborarien mugimenduari Frantziako Estatuko 50 bat talde ekologista: "Gobernuaren propagandak eta gure arteko herra akuilatuz oraindik gehiago aberastea xede duten diskurtso autoritarioek diotena gezurtatu dezagun: zuen aliatuak izaten segituko dugu, hil ala biziko afera delako". Tonu berean, Confederation Paysanne, ELB eta EHNE Bizkaia ere badabilta borrokan, agroindustria hobendun jarriz eta agroekologiaren aterabidea zabaltzeko.

LOBBYEN AZPIJOKOA, ALDAKETARIK EZ BIDERATZEKO

Pestizidengatik ur eta lur kutsatuak; monokulturak pobreturiko lurak; finantzak finkatu prezio injustuak; laborarien burujabetzaren galtzea; bio-niztasunaren ahultzea; etxalde ttipien desagerpenak –azken hogeitun urteetan Europako bost milioi etxalde desagertu dira eta 2040erako beste sei milioi dira desagertuko–; laborari anitzen egoe-



CONFEDERATION PAYSANNE

ALDAKETA SISTEMIKOAREN ALDE Frantziako Estatuari dagokionez, borrokan segitzen du Confederation Paysannek, FNSEak ez bezala, laborantza herrikoi eta iraunkorren alde dabilelako gutxiengoan den sindikatu hori.

ra prekariora; mundu mailako merkantzia liberalizatu kontrolgabea; pestizidek dakartzaten minbiziak... Horra sistema agroindustrialaren muga nagusiak. Hori guztia, gainera, krisi klimatikoaren testuinguruan: munduko berotegi-efektuko gas isuriaren %23 laborantza industrialetik dator eta aldi berean, laborariak dira muturreko fenomeno meteorologikoen lehen biktimak. Horretan gara.

AOC webgunean publikaturiko *Crise agricole: la politique de la rustine en impasse* (Laborantza krisia: petatxuaren politika ataka gaiztoan) artikuluan, Alexis Gonin ikerleak xeheki azaltzen digu bidegurutze batean gaudela: edo joera produktibista horrekin segitzen dugu, muturreraino eramanda, edo aldaketa sistematiko erradikala bideratzen dugu, laborantza eta elikadura sistemak osoki berrikusita. Dioenaz, testuinguruak jarritako erronken arabera kokatzen jakin du betidanik NPBak (Europaren elikadura burujabetza lehenik, Europa mundu mailako merkatuan kokatzea ondoren) eta gaur egun birkokatu beharra du: "Laborantzaren muturreko ekologizazioa gauzatuta, kontsumitzaileen, langileen eta ingurumenaren osasuna jarri beharko luke zentroan NPB berriak".

Laborantzaren bi norabideak ikerturik –statu quo-a eta trantsizio ekologikoa– konklusio argia du FSEC batzordearen txostenak: 5 eta 10 bilioi dolar arteko irabazia genuke trantsizio sistemikoarekin.

Bizkitartean, azken urtetan garaturiko "laborantzaren modernizazio ekologikoak" ez die gaur egungo erronkei erantzuten. "Ezin gauzatzeko oximorona dugu produktibismo berdearena, kapitalismo berdearen gisara", Goninen hitzetan. Gainera, ezin negona areagotzen die laborariei: "Arauen gaitzespena nabarmendu dezakegu laborarien kexuan. Laborantzaren modernizazio politikaren prototipoak dira arau horiek. Ereduaren kontraesana begibistan jartzen digute: produktibismoarekin segitu nahi da, baina albokalte kaltegarrienak, batez ere ekologikoak, zuzenduta. Bruselako edo Pariseko burokratek idatzitakoak dira, premiazko betebeharrak ekologistek erantzuteko. Kate administratibo konplexu horretan dira laborariak eta geroz eta zehatzagoak eta teknikoagoak diren arau geroz eta gehiago bete behar dituzte".

Arau metaketak sortu ezinegon hori arintzea lehenetsun balute bezala dabilta sindikatu potoloak, baina negoziatzerakoan interes propioei begira dabilta: arau ekologikoen deuseztatpena.

BEREZ, ATERABIDEA ARGIA DA : ALDAKETA SISTEMIKOA

Milaka laborari protestan dabilta honetan plazaratu du Food System Economics



GREENPEACE


EKOLOGISTEN BABESA Ingurumenaren aldeko neurriak deuseztatzearen aldeko lobbygintza nabarmena da. Hori horrela, Europako Batzordeak onartu du kentzea 2030erako pestizidak %50 gutitzeko helburua. Parezan, ekologistek babesa erakutsi diete laborariei. Argazkian, Parisetik zabaldu elkartasun mezua.

Commission (Elikagaien Sistemaren Ekonomia Batzordea) erakundeak lau urtez mamituriko txosten zientifikoa. Mundu mailako 60 bat ikerlari independentek idatzitako txosten hori argiki mintzo da: gaur egungo laborantza ereduak urtero 3 bilioi dolarreko kostuak ondorioztatzen ditu ingurumenaren alorrean, eta beste 11 bilioi dolarreko kostuak osasunaren alorrean. Bi norabideak ikerturik –*statu quo*-a edota trantsizio ekologikoa–, konklusio argia dute: 5 eta 10 bilioi dolar arteko irabazia genuke trantsizio sistemikoarekin.

Aldaketa globalak erran nahi luke, lekuan leku eta mundu mailan guztia dugula berrikusten: sukaldatzeko ohiturak aldatzen ditugu –haragi gutiago, lekuan lekukoa kontsumitu eta mozkin ekologiko gehiago– eta nekazaritza iraunkorra sustatzeko elikadura eta laborantza politika ausartak bideratzen dira –pestizida erabiltzaile handien zergapetzea eta diru hori etxalde ttipietara zein kontsumitzaile prekarioenetara birbideratzea eta agroekologiaren sustapen argia–.

"Eraldaketa horren kostua –mundo mailako BPGaren %0,2-0,4ko hei-

na urtero– txikia da ondorioztatuko lituzkeen bilioika dolarren parean. Klimari, naturari eta osasunari loturiko urgentziei aurre egiteko tresna interesgarriak dira elikadura sistemak, beti ere milioika herritarren bizi maila hobetuz", Herman Lotze-Campen ikerlearen hitzetan. Laborarien ongiezari erremedio iraunkor eta zintzoa emateko borondatea ukanez gero, pista interesgarriak lituzkete txosten horretan erabakitzaileek. Arazoa da, oraingoz, agroindustriaren ongiezari begira dau dela. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Evil Eye

Yuliana Ortiz Ruano

FABULAZIO KRITIKOA



EMAKUMEEI ETA DIFERENTZIEI EZ DIGUTE BALIO KONTAKIZUN HEROIKOEK



Elkarrizketen meritua, batzuetan, elkarrizketatuarena da oso-osorik. Yuliana Ortiz Ruano idazleak, hari-mutur bati heldu, eta bere argitasuna hedatzen dizu aurrean, opari baten moduan. *Fiebre de carnaval* [Inauteri-sukarra] eleberria aurkeztu du orain dela gutxi Bilbon, Ecuador Etxea elkartearen eskutik, eta horren haritik mintzatu gara geografia afektiboez, ahozko memoriaz eta dolarizazioaren ondoren luzeaz.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

Esmeraldas-ekoa zara (Ekuador), eta eremu horrek garrantzi handia du zure literaturan. Kontatuko zenidake nolakoa den?

Amerikako lehen lurralde askeetako bat izan zen. Afrikarren ondorengoak hasi ziren han bizitzen, beraiek zihoa-zen itsasontzia hondoratu eta gero: esklabotzari ihes egin zioten. Istripu bat izan zen, berez pertsona horiek ez ziren han geratu behar, baina horri esker erresistentzian aritu ziren hiru mende, eta inguru hartan ez zen esklabotzarik izan luzaroan. Beste espazio batzuetan onibar-sistema [*hacendazgo*] egon zen; Esmeraldas, berriz, cimarronaje de-

lako [esklabotzatik ihes eginda libre bizi ziren pertsonen] esaten zitzaizen "*cimarrón/a*], afrikar jatorrikoen eta indigenen arteko lankidetzak.

Eta horren ostean?

Esmeraldesen esklabotza berantiarra izan da, ez zen koloniaren garaian gertatu, lehen errepublikarenean baizik. Ekuadorreko Errepublika eremuaz jabetu ostean hasi zen Esmeraldaseko problematika: eskubideen lagapena, esklabotza eta natur baliabideen ustiapena. Esmeraldasen hainbat matxinada izan ziren; lurralde komunalista da oso, komunista ere bai, eta jendeak borroka

egin behar izan du dena lortzeko: ura, hezkuntza, etab. Ekuadorren barruan, Esmeraldas ez da afrikarren ondorengo gehien dagoen eremua, baina bada afrikarren ondorengoek espazio publikoa gehien hartzen duten lekua. Afrikarren ondorengoak diren irakasleak daude, eskola-zuzendariak... Lanaren zatiketa koloniala ez da hain nabarmena, hiriburuan edo Guayaquilen gertatzen den bezala, non afrikarren ondorengoak zerbitzuen sektorean edo garbiketean ikusten dituzun, eta ez, aldiz, beren eskubideak eta boterea gauzatzen eta espazioa hartzen. Hori ere azpimarratzeko modukoa iruditzen zait.



Yuliana Ortiz Ruano

ESMERALDAS, EKUADOR, 1992



Idazlea eta ikertzailea. Literaturako lizentzia ikasi zuen, arteak eta idazketa landuz bereziki, eta gaur egun ikertzaile gisa dihardu Arteen Unibertsitatean (Guayaquil, Ekuador). Hiru poema-liburu idatzi ditu, eta hainbat sari jaso. 2022an *Fiebre de carnaval* eleberria argitaratu zuen, eta harrera beroa izan du bai Ekuadorren bai nazioartean. Lan horixe aurkeztera etorri da duela gutxi Bilbora. Orain beste eleberri bat idazten ari da.

Gaur egun nola dago egoera?

Esmeraldas gatazka- eta erresistentzia-lurraldea da, eta mehatxupean dago beti, bai estatuaren aldetik bai narkotrafikoaren aldetik. Narkotrafikoa azken batean estatuaren parte da, estatuak baimentzen baititu narkotrafikoarentzat egokiak diren zenbait politika, hala nola heliportuak. Correoaren garaian itxi ziren, baina pandemiaren ostean eskuinak berriro zabaldu ditu, eta horrek giro aproposa sortzen du narkoarentzat. Orain krisi handi bat bizi dugu, migrazio eta mugikortasun behartua narkotrafikoaren gaiarengatik eta gerrarengatik. Gerran gaude.

Bestalde, Esmeraldas petroliokonpainia bat dago, kalte handiak ekarri dituena, suteak gertatu dira adibidez. Esmeraldas giza baliabideen eta natur baliabideen ustiapena oso nabarmena da, legez kontrakoa ere bai. Estatuak baimentzen du hori dena, lurraldeak lagatzen dizkie nazioarteko multinazionaleri. Gure portua jada ez da gurea, Txinarena baizik, eta zaborra deskargatzen dute bertan.

Literaturarekiko grina nondik datorkizu?

Esmeraldasek lotura estua du ahoz-kotasunarekin eta poesiarekin. Mundu guztiak errezitatzen ditu poemak, mundu guztiak egiten du musika. Baina nire jarduerak zerikusia du nire amarekin eta izebekin, eta haiek literaturarekiko zuten harremanarekin. Ez bakarrik ahozkoa, idatzizkoa ere bai. Liburuzainak ziren, liburutegiak zituzten; ahalegin handiz bilduak. Haien bidez liburuaren objektua oso gertukoa egin zitzaidan.

Artxibo koloniala ikertzen duzu.

Fikzioa eta poesia idazteko ikertzen dut artxiboa, bai, gauza bera egiten duten ikertzaileen eskutik, adibidez Saidiya Hartman, zeinak fabulazio kritikoa idazten baitu artxibotik abiatuta. Artxibo kolonialarekin lan egiten dut, eta ahozko memoria ere oso garrantzitsua da niretzat. Azken batean, paperean gordetzen dena gauzatzailearen letra da. Koloniaren garaian afrikarren ondorengoak objektuak ziren, eta ez dago haien kontakizunik lehen pertsonan. Lehen pertsonako ahotsen bat baldin badago epaiketa batean adibidez, kasu horretan ere eskribaren letra da.

Ahozko memoriaren bitartez beste historia bat ehuntzen da.

Musikaren bidez ere bai. Kantuek leku nabarmena dute zure nobelan.

Bai. Krisiek beren soinua eta estetika propioak sortzen dituzte, eta hori oso presente dago afrikarren ondorengo komunitatean; gu musikaren bitartez iristen gara historiara, eskolaren bidez iritsi baino lehen. 1990eko hamarraldiaren bukaeran halako proiektu bat abiatu zen, Etnohezkuntza izenekoa, eta ideia zen afrikarren ondorengo eta indigenen komunitateak ez zitezela begirada zuri eta mestizoaren ikuspegitik islatu, eta, aldiz, testuak idatz zitezela komunitatean bertan, komunitateko ikertzaile eta irakasleekin. Kitxua ikasteko aukera ere zabaldu zen.

Horrek aldaketa ekarri zuen zenbait tokitan, beste leku batzuetan kontra egin zioten, hala nola hiriburuan eta Guayaquilen, baina Esmeraldas batez ere autohezkuntza-prozesu oso indartsua gertatu zen etnohezkuntzaren bidez. Edonola ere, horren aurretik, musika beti izan da erresistentzia-prozesu oso ahaltzua. Musikaren politikari eta poetikari esker herriak uler dezake bere egoera, jendeak kontzientzia hartzen du bere bizipenez eta segregazio historikoaz.

Itsasoa etengabe agertzen da zure obran.

Itsasoa oso konplexua da. Eta itsasoaren kontraesanak obsesio moduko bat dira niretzat. Oso leku askea dirudi, baina aldi berean oso kontrolatuta dago, estratuz betea. Nire jaioterriko ekonomia oso lotuta dago itsasoarekin, irla batekoa naiz, eta ekonomia itsasoan lantzen da. Dauzkagun gauza gehienak, onak zein txarrak, itsasoaren parte dira; droga ere handik sartzen eta irtetzen da. Itsasoak oso zabal dirudi, baina estatuek mugak jartzen dizkiote. Eta oso gauza fuertek gertatzen dira itsasoan. Esmeraldas oso gauza bitxiak gertatzen dira, adibidez prostituzioa itsas zaballean.

Fiebre de carnaval nobelaz galdetu nahi nizuke. Nola hasi zinen idazten?

Haurtzaroaren inguruan ikertzen ari nintzen, asko interesatzen zait. *Infan-*



te hitzaren sustrai etimologikoak aho-
tsik gabea esan nahi du, baina kontua ez
da umeak ez duela hitz egiteko gaitasu-
nik, badu, baizik eta ez duela boteririk
polisean. Eta nik sakondu nahi nuen ea
agentziarik ez duten gorputzek nola izan
dezaketen potentziarik, zeren potentzia
eta boterea ez dira gauza bera. Bila eta
bila, Ainhoa protagonistaren ahotsa aur-
kitu nuen, eta eutsi egin nahi izan nion.
Oso organikoa izan zen, plazerarekiko
eta gozamenarekiko konpromisoa egin
nuen. Ahots horrek gauza askotatik as-
katzen ninduen, eta beste begirada ba-
tetik ikus nezakeen lurraldea, geografia
afektibo hori. Nik badut ondare kultural
eta politiko bat, Ainhoak ez duena, eta
oso interesgarria zen zenbait gauzare-
kin topo egitea begirada xalo batetik,
gauzekin lehen aldiz topo egin duenaren
begiradarekin.

Erraza egin zitzaizun ahotsari tira egitea?

Erraza ez, baina askatzailea izan zen.
Urteak behar izan nituen, baina azkar
pasatu zitzaizkidan. Zailena, uste dut, li-

buruan jarri nahi nituen baina beldurra
ematen zidaten gauza batzuk bidera-
ntzea izan zen, adibidez, umeen haurdu-
naldiak eta sexu-abusuak. Geografiak,
niretzat, arazoak ere badira, geografia
eta talde sozial jakin batean indarkeria-
egoerak baldin badaude, ez nien
ezikusia egin nahi, arazoari ere
eutsi nahi nion.

Eta lortu duzu, haurraren begirada xaloa bazter utzi gabe.

Bai, gogoko dut idazke-
taren bitartez beste ahots
batzuk ekartzeara. Nire bizitza
oso aspergarria da, ezin dut
niri buruz bakarrik idatzi. Asper-
dura galanta iruditzen zait. Helduen bi-
zitza aspergarria da, eta literatura heldu
asko dago. Nik fikzio anti-heldua idatzi
nahi dut, beste gauza batzuekin lotutako
fikzio bat. Niretzat, heldutasuna siste-
maren akats bat da. Hau da, batzuetan
zaindu eta babes gaitzaten behar dugu.
Nik ez dakit nola funtzionatzen duen
munduak, baina heldua zarenean eten-

gabe performatu behar duzu badakizula.
Eta hori gezurra da nire ustez. Fikzio an-
ti-helduek gogora ekartzen didate inork
ez dakiela nolakoa den mundua, zeren
munduaren zati txiki bat baizik ez dugu
ezagutzen, beste errealitate mordo bat

“

Ekuadorren, jendeak dena galdu zuen. XXI. mendetik aurrera, galera etengabea izan da, galera-ekonomia bat”

dago, eta gure konfort-eremutik
ateratzen gaituztenean, zer-
bait gertatzen da eta ez gara
ez helduak ezta gizakiak
ere batzuetan. Horregatik,
asko gustatzen zait ertaz
pentsatzea, zer gertatzen
den gauzen ertzean, lu-
rraldearen ertzean, mugan.

Ainhoaren mundu-zati horretan murgilduta dago irakurlea, eta halako batean gertaera makropolitikoak agertzen dira. 2000ko hasierako krisi ekonomikoak Ekuadorren. Garai horri erreparatu nahi zenion zehazki?

Erabat. Dolarizazioa zauri irekia da
oraindik Ekuadorren. Jendea asko po-
bretu zen, aurrezki guztiak galdu zituen,
ahalegin handiak eginez unibertsitatean

ikasi eta gero hona edo Estatu Batuetara joan behar izan zuen zoruak garbitzera. Beste batzuk aberastu egin ziren, noski. Baina oso gauza fuertea da, itunpeko ekonomia da guztiz, eta gaur egun dauz- kagun arazo gehienak hortik datoz.

Azalduko zenidake azken hori?

Dolarizatutako herrialdeei begiratuta –Panama, Costa Rica, Ekuador– zerga- paradisuak dira funtsean, aktiboak gar- bitzeko eta desbideratzeko aproposak. Arautu gabeko gauza mordo bat egin dezakezu, zeren ekonomia hori Estatu Batuetan arautzen da, eta Estatu Batuek modu arraro asko dauzkate aktiboen gaineko zergei iskin egiteko. Dolariza- zioak bankuei soilik egiten dio mesede. Ez dio mesede egiten pertsonari; guztia gal dezake edozein momentutan, eta bi- zi-kostuak izugarri jotzen dira.

Literaturak balio dezake halako prozesuak beste modu batean lantzeko?

Duela gutxi Ekuadorreko Unibertsita- teko ikertzaile batek saiakera bat ida- tzi zuen dolarizazioari buruz, eta nik ez nekien nirearen aurretik ez zegoela dolarizazioaz hitz egiten duen literatur lanik. Dolarizazioari buruzko liburu ba- karra Jamil Mahuad-ek idatzi zuen, hau da, Ekuador dolarizatu duenak. Eta oso diskurtso neoliberala du, noski.

Nik ez dut zehazki dolarizazioaz hitz egiten, oso ikuspegi zabala da, haur ba- tena, gertaera transzendental bati bu- ruzko kontakizun txikiago bat. Gertaera horrek bizitza aldatu zion komunitate proletario, beltz eta bazterrekoari batez ere. Hiriburuan eta Guayaquilen egon ziren onura batzuk, beti bezala. Baina periferiako pertsonak dolarraren ustez- ko onuren zain gaude oraindik, eta ez dira iristen.

Errealitate hori ikuspegi dokumen- tal batetik aztertzen da maiz, eta estre- sagarria eta konplexua gerta daiteke. Fikzioa, berriz, tresna askatzailea izan daiteke problematika transzendentalak beste leku batetik pentsatzeko.

Jendearen bizitzan zer-nolako eragina duten ikusteko.

Batez ere Ekuador migrazio mingarri- z beteta dagoelako. Jendeak dena galdu zuen. XXI. mendetik aurrera, galera etengabea izan da, galera-ekonomia bat. Hori apur bat doitu zen correismoare- kin. Are, itzulera-plan bat ere antolatu zen, eta jende asko itzuli zen, batez ere



Espainiatik eta Estatu Batuetatik, baina orain bankuak boterea dauka berriro. Eta ostrazismo-prozesu oso indartsu batean gaude.

Azken hilabeteetan etxetik kanpo ibili zara, liburua aurkezten eta idazketa-egonaldia batean.

Bai, Granadan (Andalu- zia) egon naiz hilabetez, ondoren Italiara eta Portu- galera joan naiz, eta gero Gra- nadara beste hilabete. Esperientzia ederra izan da. Granada zehazki oso leku interesgarria iruditu zait, arabia- rren eta afrikarren gaiarengatik, kul- turen nahasketa interesgarria dago. Orain, urtarrilaren amaieran Ekuado- rreara itzuliko naiz.

Nola bizi izan duzu Ekuadorren gertatzen ari dena, handik hain urrun egonda?

Zaila da. Baina itzuli egingo naiz: han bizi naiz, han daukat nire lana, nire la- gunak... Nire herrialdea da, nire etxea.

Granadan beste zerbait idazten aritu zara. Kontatuko zerbait?

Nobela bat idazten ari naiz artxibotik abiatuta, baina fabulazio kritikoa- ren ikuspegitik. Ez da nobela historikoa. Oso gogoko dut historia, baina ez dut uste

posible denik. Ez dut uste historia bere horretan posible denik, beti da beste baten kontakizuna, begirada heroiko batetik datorren kontakizun bat.

“

Niri, orokorrean, beldurra ematen dit idazteak. Uste dut horregatik idazten dudala”

Eta heroikotasuna arazo bat da, emakumeei eta diferen- ziei ez digute balio konta- kizun heroikoek, guretzat ez baitira hala. Gustuko dut fikzioz ñabartutako historiaren kontzeptua, historia bera fikzioa baita.

Historia nola kontatzen digu- ten, oso fikziozkoa izan daiteke hori ere. Esate baterako Granadan birkonkistaren kontua aipatzen dute, baina noren birkonkista? Zeri buruz ari gara? Denoi ez digu balio kontakizun horrek, eta fikzioak beste potentzia bat izan dezake. Asko interesatzen zaizkit kontakizun txikiago horiek.

Motibatuta zaude idazketarekin?

Bai, aspalditik egin nahi nuen hau. Baina beldur pixka bat neukan, eta orain dis- tantzia aprobetxatuta ekin diot.

Beldurra zeneukan... Azalduko?

Niri, orokorrean, beldurra ematen dit idazteak. Uste dut horregatik idazten dudala. Idazterakoan gauza batzuek kezkatzen naute, baina beti nabil beldu- rraren ertzean, beldurrari iskin egiten. Halako bertigo bat dago beti idazten du- danean. ●



Eskuinaren berrindartzea Latinoamerikan

Ezkerraren krisiak Latinoamerikara salto egin du. Orain gutxira arte eskualdeko mapa ia guztian gobernu aurrerakoiak topatu zitezkeen. Baina gauzak aldatzen ari dira azken hilabeteetan. Hiru hauteskunde presidentzialistek inflexio puntua markatu dute: Daniel Noboak Ekuadorren irabazi zuen, Javier Mileik Argentinan eta Nayib Bukelek ia botere osoa lortu du El Salvadorren.

Latinoamerikako bigarren olatu arrosa amaitzen ari da. Kubak, Nikaraguak eta Venezuelak AEBen eraso ekonomikoen erdian jarraitzen dute. Bolivian ezker subiranista gerra zibilean barneratuta dago eta Brasilek, Mileiren garaipenaren ostean, Hego Amerikarentzat zituen integrazio proiektuak oztopatuta ditu.

Aurrerakoientzako etorkizun opa-roa Mexikon baizik ez da argi ikusten. Andrés Manuel López Obradorren gobernu arrakastatsuen ondoren, badi-rudi ekaineko hauteskundeetan Claudia Sheinbaum Morenako hautagaia Mexikoko presidente izango dela. Peru, ordea, autoritarismoan hondoratuta dago Pedro Castilloren aurkako estatu-kolpearen ondoren. Guatemalan estatuko botere faktikoek hamaika ahalegin egin zituzten Bernardo Arévalo aurrerakoiak presidente kargua ez hartzeko. Azkenean ez zuten lortu; halere, gobernu berria abisatuta dago eta, seguruenik, erreformak martxan jartzerakoan kontu handiz ibiliko da bere gain dagoen mehatxua jakinda.

Latinoamerikako bigarren olatu arrosa amaitzen ari da. Kubak, Nikaraguak eta Venezuelak AEBen eraso ekonomikoen erdian jarraitzen dute

Kolonbian, arrakastaren eta porrotaren artean, Gustavo Petroren gobernu dago. Arazoak eta jazarpen mediatikoa tarteko, presidenteak duintasunez agenda subiranista eta ezkertiarra bultzatzen jarraitu du. Halere, gobernuaren etorkizuna ez dago garbi, horregatik, eraldaketa sustatzen duten indarren artean lehentasuna izan beharko da ezkerreko alderdi sendo eta kohesionatu bat erakitzea, gobernuan jarraitzeko edo oposizioa egiteko.

Olatu arrosaren porrotaren artean sonatuenetakoa Txilekoa izan da. Oraindik gobernu ezkertiarra jardunean dago, baina jakina da zaborraren minutuak jolasten ari dela hurrengo hauteskundeetan kanporatua izan arte. Bidean prozesu konstituziogileak porrot egin du eta Gabriel Boricek men egin du sektore moderatuen alde. Egia da botere legegilean eta komunikabideetan kontrako indar-korrelazioa zuela, baina ez Petrok



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

duena baino okerragoa, eta bien arteko alderaketan Txilekoa gobernu beldurtia eta AEBekin lerrotatua suertatu da. Portaera horren arriskua jakina da: aurrerakoiak gobernuan mantentzeko moderatzen saiatzen direnean, eskuin murrari ateak ireki ohi dizkiote. Bestela, Argentinan peronismoari gertatutakoa begiratzea besterik ez du Boricek.

Ezkerra demokrazia liberalaren interpretazio neoliberalak markatzen duen egokitasun politikoan harrapatuta dagoen bitartean, Latinoamerikan gero eta gazte gehiagok, eta ez hain gazteek, ezkerre aukera sistemiko gisa ikusten dute eta eskuina sistemaren aurkako hautu apurtzaile bezala.

Akaso, Mileiren alde bozkatu zuten gehienek etsipen desesperatutik egin zuten, baina baita Mendebaldean nagusitzen ari den gizartearen ikuspegi individualistatik ere: nire egoera pertsonala hobetzea nahi dut eta horretarako prest nago beste pertsona batzuk bidegabeki kaltetuak izateko. Nayib Bukelek hori lortu du, El Salvadorreko herritar gehienek beraien bizitzan segurtasun hobekuntza handia izan dute gobernuari esker, nahiz eta hori giza eskubideen urraketekin eta botere abusuarekin lortu. Baina kaltetuak izan ez direnen artean gehiengo oso pozik dago, horregatik, Bukelek %85eko babesa jaso du. Izan ere, agintarien legitimitatea ez da prozedurengatik lortzen, baizik eta emaitzengatik. ●

Ahizpatasuna



PAULA ESTÉVEZ



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Μνάσασθαι τινά φαμι
καὶ ὕστερον ἄμμεων.
Norbait, uste dut,
oroituko da etorkizunean gutaz.
Safo (-630; -570)

Maite Idirin pausatu da, joan den urtarrilaren 20an. Itzal handiko anderea ez nuen ezagutu, baina haren ibilbidea gogoratzean, kantagintza herrikoitik musika klasikora, 1979an sortu zuen *Ahizpatasuna* kantua berriz entzutean, Jokin Apalategi Begiristain eta Paulo Iztueta Armendarizek *Maite Idirin, herrigintzan kantuz* liburua berriz irakurtzean (UEU, 2023), hausnartzen aritu naiz, azken egun hauetan.

Nihaurk ez dut ahizparik, baina *ahizpatasuna* hitzak berehala sustatzen du, ene baitan, familiako argazki bat, bestalde ezaguna dena, Baionako Euskal Museoa begiratu delako, legenda honekin: “Eskuz eginiko xistera fabrikazioa Azkainen. Lakarra familia”. Ikus daitezke aitama xaharrak erdian eta sei alaba inguruan –emazteak, jadanik–, aurpegia gogor, zume lanetan. Potreta hori ikusgai da Lapurdiko erakustoki nagusian eta dokumentu frankotan, baita Euskal Herriari buruzko fotografia liburua ederretan ere, pilota jokoaren

bilakaera irudikatzeko. Bizkitartean, etxean, argazki hori erakusten zigularik, amatxi Klarak bestelako iruzkina eskaintzen zigun: “Begira: hementxe daude gure amatxi Arroza eta bere ahizpak. Neska horiek guztiak boz xoragarria zuten. Operan kantatzera joateko proposamena ukan zuten, baina etxean egon ziren, xisterak txirikordatzen”. Argazki mutu hori ez dut sekula lotu pilotaren historiarekin, sekula ez euskal kirol tradizionalaren modernizazioarekin, han eta hemen agertzen den gisara, baizik ahizpa arteko kantu zaletasun miresgarriarekin, eta kantagintza lirikoan loratzeko garaiko traba sozialekin. “Gizaldiz lotuak gaitun”, dio Maite Idirinek.


Ahizpatasunak oroitarazten dit ere bai Saforen poesia. Ezaguna da Lesbos uhartean bizi zen Safok goraiatu duela emakume arteko maitasuna, baina ez da ahortzi behar izan zela ere, musika klasikoan, lehen emazte konposatzailea, adituen arabera. K.a. VI. mendean, emazteen arteko elkartasuna batu zuen goi-mailako lirikarekin. “Hara non kantatuko dudan ederki, ene maitale andereei plazer egiteko”, dio Safok.

“Irauliko bai dinagu, / gizonaren ortua”, erraten du *Ahizpatasuna* kantuak, emazteek haizu dutela gizonetzkoen ere-

muetan sartzeko eta berdintasunez aritzeko. Ez ote zigun hori adierazi, joan den urriaren 15eko ARGIA-n, Leire Artola Arinek *Emakume baserritarrak, funtsezkoak bezain ahaztuak* erreportajea, landa eremuko emakumeen nazioarteko egunaren kari? “Bizitzaren zaintza” dute helburu emazte laborariek, dio Ana de La Mazak artikuluan. “Landatuko bai dinagu / biziaren mezua”, Maite Idirinek. Zentzu literalean ez ezik, metaforikoan ere balio dute baieztapen horiek: emazteek, batak bestea sustengatuz, esparru guztietan ereindako zorion haziak zoin diren luzaz zerrenda genitzake.

Ahizpatasuna etenik gabeko elkartasuna da, denboraren, espazioaren eta klase sozialen arteko mugetatik at. “Emakume, ahizpatasunaren haizea dun, / etxetik irten hadi, bere gutuna entzun”, du otoizten Maite Idirinek: ahizpak dira lira lagun ari zen antzinateko olerkaria, XIX. mendeko erresioñola langilea, abeslari garaikidea eta etorkizuneko nekazaria; ahizpak, andere xaharra eta neskatxa gaztea; ahizpak, eskulanean kantuz ari den herritar xumea, eta gela ospetsua ahotsez betetzen duen musikari profesionala; hitzak, bihotzak eta gorputzak bizirik iraunarazten dituztelako. ●

Zigorraren kultura eta pedagogia feministak



HIRUKI LARROXA

Gaur egungo hezkuntza-sisteman, eskola-paradigma birplanteatu behar dugu. Zigor-neurrietan oinarritutako ikuspegi tradizionala baztertu, eta denbora luzean ikasleen ordena eta diziplina mantentzeko tresna gisa erabilitako praktika batzuen eraginkortasuna eta etika zalantzan jarri: zigorra, kanporatzea edo espedientea irekitzea. Eta zintzoki esanda, horretarako baditugu polizia-etxeak, epaitegiak eta kartzelak; klasistak, matxistak eta arrazistak, bide batez esanda.

Egia da irakasleek egunero askotariko erronkak izaten dituztela, baina ikasgeletan zigor-neurri gehiegi txertatzeak ere eragiten die. Zigorrek etengabe aplikatzeak estresa, akidura emozionala eta higadura profesionala eragiten die, eta horietako asko harrapatuta sentitzen dira baliabideak murrizten dituen eta diziplina ikasleen eta irakasleen ongizate integralaren gainetik jartzen duen hezkuntza-sisteman.

Baina zigorra ez da beti konponbide eraginkorrena edo etikoena (eta are gutxiago pedagogikoena) portaera-aferei aurre egiteko eta giro positiboa eta *erresilientea* sustatzeko. Izan ere, hezkuntza-eremuetan zigor-neurri gehiegi erabiltzeak ikasleen artean erresumina eta alienazioa eragiteaz gain, euren ongizate emozionalean eta garapen akademikoan ere eragin negatiboak izan ditzake.

Eta jakin badakigu askotan portaera disruptiboak azpiko premien adierazpenak direla: egiturazko desberdintasunak, familia-arazoak, berdinen taldean sartu nahi izatea genero-aginduetan oinarritutako portaeren bidez, ikasteko zailtasunak edo osasun mental eta afektiboa lortzeko trabak...

Gainera, zigor-neurriak bidegabeak eta diskriminatzaileak izaten dira. Eta sarritan, talde demografiko batzuetako ikasleak, hala nola arrazializatuak edo ezgaitasunak dituztenak, neurriz kanpo diziplinatzen ditugu beren parekoekin alderatuta. Horrek gizartean dauden egiturazko desberdintasunak islatzen eta indartzen ditu, eta ikasle horiei hezkuntza ekitatiboa izateko eskubidea ukatzen die.

Hortik, pedagogia feminista eta interseksionalen premia, prebentzioa erreminta gisa gatazkak erdigunean jarri eta horiek konpontzea helburu dutenak; desberdintasun- eta bazterketa-zikloak betikotzen dituzten elementuak zailtzen jarrita. Baita ikasleen homogeneotasunean eta horien arteko lehiakortasunean oinarritutako eskola-egitura arautzaile eta diziplinatzaileak ere.

Zigorra ezarri beharrean, ikasleei tresnak eman eta bide-laguntzea da kontua, beren ekintzengatik erantzukizuna har dezaten eta gatazkak komunitate-logikatik konpon ditzaten (edo ez). ●

Etkezuloak

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Hainbat hamarkadatan neska gazteak eta emazte zohituak etxetik ateratzea bultzatu dira, laneko, ausarako, kulturizatzeo eta sozializatzeo. Gure amen belaunaldiko andreen nortasun agirietan *profession: sans...* agertzen zen idatzirik. Jatorrizko hizkuntzan uzten dut, are esanguratsuagoa ematen duelako horrela! Sukaldean eta kanpoan lanpetuak zebiltzan arren, ofiziorik ez zitzaien onartzen. Gizonaren edo gizakiaren menpeko ekonomiko eta sentimentalak ziren arras.

Badirudi gaurkoan, moda berri bat hedatzen ari dela, irudiak sare sozia-

letan ikusten ahal ditugu, egun osoan pijamatan etxean geratzearena, alegia: neskatxa horiek *Stay at home girlfriend* edo SAHG joera kolektiboko kideak dira, 20 urte ingurukoak eta gehienak zuriak, ezkon eta haurgabeak. Leopardo koloreko arropaz beztitzen eta astunki makillatzen dira gero, arrats apalean beren senargaia etxeratuko denean, hari agradagarri izateko. SAHG honek ez du etxeko lanik partekatzen, gizonezkoak ez duela, halatan, baxera edo garbiketa kalapitaturik egin beharrik.

Patriarkatuaren ereduak etorkizun oparoa du. Amodioaren izenean. ●

Gure “Mona Lisa” iraultzailea



LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ
ANTZEZLEA ETA
SORTZAILEA

Herri axolagabea! Zein ezberdina izango litzatekeen zuen patua, askatasunaren prezioa ezagutuko bazenute! Baina ez da berandu. Emakumea eta gaztea naizen arren, heriotzari aurre egiteko ausardia dut orain, eta mila aldiz gehiagotan ere izango nuke, ez ahaztu!”

Hitz horiek esanda hil zen fusilatuta Policarpa Salavarrieta 1817ko azaroaren 14an, gaur egun Bolivar izena duen plazan, Bogota erdian. *La Pola* izenaz ezaguna, Kolonbiako independentziaren ikono garrantzitsua da.

Policarpa Salavarrieta eta biok probintzia berean jaio ginen, Cundinamarcan. Guaduas herrian jaio zen bera, ez dago argi zein urtetan, nahiz ofizialki 1795 dagoen ezarrita. Jostuna eta irakaslea izan zen. Bere garrantzi historikoa bizitzan erakutsi zuen determinazioan, gizatasunean eta ausardian datza. *La Polak* egin-kizun erabakigarria izan zuen Espainiaren aurkako askatze prozesuan. Berak independentziaren bidea oparitu zigun, baina tamalez klase politiko nagusiak ez zuen ezer ulertu garai hartan, eta ezer ulertu gabe jarraitzen du orain.

Zenbat maite zuen gizateria, nolako fedea zuen herriarengan eta zorotik ere

'La Pola'k
independentziaren
bidea oparitu zigun,
baina tamalez klase
politiko nagusiak
ez zuen ezer ulertu
garai hartan, eta
ezer ulertu gabe
jarraitzen du

zenbat zuen *La Polak*. Inteligentzia lanak egiten zituen eta espioia izan zen. Lortzen zuen informazioa mugimendu independentistari pasatzen zion. Garai beldurgarria izan zen bizi izan zuena, Espainiako koroak hala ezarrita. Horregatik fusilatu zuten plaza publiko batean, herriko jendeak kontu har zezan.

Bere irudia banku-billeteetan eta txanponetan agertu da maiz, Bogotako auzo batek bere izena du, Kolonbian ez dago eskolarik bere hormetan Poli-

carparen ausardia laudatzen ez duenik. Testu-liburuek ere bere biografia nabarmentzen dute, erreferentea da herri xeheko emakumeen artean. Antzezlanak idazten dira bere bizitzari buruz. Lehenengo 1820an eman zuten oholtza gainean eta, garaiko iturrien arabera, ikusleek fusilamendua galarazi egin zuten. Telesailetan emakume heroien balentriak kontatu dituzte askotan. Argentinan kale batek bere izena du. 1911n Bavaria enpresak garagardo bati jarri zion *La Pola* izena. Horregatik, kolonbiarrok garagardoari *pola* deitzen diogu.

Hego Amerikako margolari handi askok bere erretratua egin dute, eta horietako bat bereziki aipatu nahi nuke, José María Espinosak egindakoa, hain zuzen ere. Erretratu hori gaur egun Bogotako Museo Nazionalean dago ikusgai, eta gune propio berezia eta nabarmena du. Espinosak ere parte hartu zuen askapen borrokan eta Policarpa pertsonalki ezagutu zuen. Erretratu eder horrek beti ekartzen dit gogora Leonardoren *Gioconda* eta, distantziak distantzia, gus-tatzen zait pentsatzea emakume handi batek egindako ekarpenaren edertasuna islatzen duela gure “Mona Lisa” iraultzaileak. ●

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



 ARGIA Azoka



Prezioa **32 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

ISRAEL ULERTU, SIONISMOA BORROKATZEKO

Nola eraiki du bere burua Israelek? Zein kontakizun egin du bere historiaz? Nola ulertu bere gerra politika, hamarkadetako palestinarren genozidio kalkulatu, disimulurik gabeko eguneroko ankerkeria, bere agintarien adierazpen mesianikoak, defentsaren izenean etengabe erasoan bizitze hori? Israel eraiki duten sionismoaren mito historikoak aztertuko ditugu, horien kontraesan eta arrakalak seinalatzearekin batera, Israelgo egungo gizartera heldu arte. Ilan Pappéren eskutik egingo dugu bidea nagusiki, ziurrenik Israelgo historialari antisionista ezagunena.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Israel izango da munduko herrialde bakarra non, bi pertsonak deskuiduan elkarren aurka estropezu egiten badute kalean, erreflexu inkontziente gisa barkamena eskatu ordez, paparra aterako duten keinu mehatxagarrian". 2002a zen hori entzun nionean Argentinan ezagutu nuen Gabrieli. Israelen bizi izandako judua zen Gabriel, eta bertara bueltatzeko zen enplegu bila. Ushuaiarako bidaia zinez luzean, hiruzpalau aldiz egin genuen bat autobus edo ostatuetan, gure moduko *motxileroen* artean. "Israelen, lagun arteko futbol partida bat jolasten baduzu, hanka jartzen duzu jokoan", ere esan zidan. Bidaia berean, tarteka, gazte israeldarren talde batekin ere egin genuen bat. Futboleak hasi ziren behin, eta zen-

tzua eman zioten aurreko baieztapenari. Israelgo Estatuaz gizarte militarizatu baten irudia eman zidan Gabriele, oldarkorra etxe barruan zein mugetatik kanpo. Oldarkortasun horren azalpena ere eman zidan, judu israeldarren artean kontsentsuzkoa litzatekeen ideia batean lukeena jatorria: Holokaustoan juduek ardi otzanan gisan onartu zuten genozidioa; otzantasun hori ez da errepikatuko.

2023ko azaroan, Ariel Feldman argazkilaria eta zinemagileak *Gaza: Sobre sionismo, judaísmo, racismo y barbarie* (Gaza: sionismoaz, judaismoaz eta basakeriaz) artikulua argitaratu zuen *Jacobin* aldizkarian. Israelen jaiotako 44 urteko judua da Feldman. Gaztetan Argentinara joan zen bizitzera, baina hainbat aldiz



bueltatu da sorterrira. Eskola amaitzeaz zela unibertsitate ikasketak Israelen egitea pentsatu zuen. Ez zuen, ordea, hiru urteko derrigorrezko soldaduskarik egin nahi. Ikasten hasi eta ondoren kontzientzia eragozle egitea zen aukeretako bat. "Baina lagun israeldar batek esan zidan ez zuela zentzurik hori egiteak, horrela inoiz ez nintzatekeelako Israelgo kide izango egiazki, Armada baitzen herrialdearen bizkarrezur afektibo eta kulturala. Soldadutza da israeldarren helduarorako eta herritartasunerako bidaia-erritua".

Feldmanen ohartarazpena gure egiten dugu: "Ez dago ezer berezkorik, ontologikorik inongo herriren geneetan, izatez krudela edo supremazista egiten duenik. Baina badira mugimendu ideo-



Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroa.

RONEN ZVULUN, REUTERS

logikoak eta antolaketa politiko moduak horrela izaten amaitzen dutenak”. Sionismoa da Israelgo Estatuaren oinarri ideologiko-politikoa.

HISTORIA, SIONISMOAREN ARDATZ

The Idea of Israel. A History of Power and Knowledge (Israelen ideia. Botere eta ezagutze historia bat) liburu mardula argitaratu zuen Ilan Pappék 2014an. Sionismoak Israelgo Estatu eta bere proiektu “koloniala” justifikatzeko eraiki duen kontakizuna aztertzen du liburuak, errealitate historikoarekin alderatzeko.

Sionismoak batasun historiko bat eraiki zuen ia 2.000 urtetako aldi historiko baterako: K.o. 70. urtetik –Judeako erbeste erromatarren eskutik–; 1882ra –sio-

Sionismoak Holokaustotik bizirik irten ziren juduei eta herrialde arabiarretakoei eman zien tratuak balio dezake irudikatzen palestinarrei ematen diena

nismoaren fundazio data ofiziala, Leon Pinsker medikuak alemanerazko *Autoemancipation* (Autoemantzipazioa) argitaratu zuen urtea. Historialari sionistek

frogatu nahi izan zuten, batetik, juduak beti mantendu zirela Palestinan modu batera edo bestera, eta, bestetik, beti egon zela *aberrira* bueltatzeko nahi bat mundu osoan barreiatutako diaspora judutarrean. Pappéren arabera, frogak oso ahulak dira: “Deklarazio baten parekoak dira, sionismoaren aurreko historian juduek desira inkontziente bat zutela dioena, garai hartan juduek berek ezagutzen ez zutena, Palestinaren lurraldera itzultzekoa”. Horri gehitu behar zaio, Pappéren azterketatik kanpo geratzen bada ere, sionismoaren barnean estatu judua beste lurralde batzuetan eraikitzen aukera ere eztabaidatu zutela hasierako urteetan, Argentinan edo Ugandan kasu, Palestinara *bueltatzearen* patu historikoaren ideia kolokan jartzen duena.



David Ben Gurion lehen ministroa Israelgo Estatuaren sorrera adierazpena irakurtzen, Tel Aviv, 1948.

ISRAELGO GOBERNUAREN PRENTSA BULEGOA. WIKIPEDIA

“Lurrik gabeko jende baten mugimendua, jenderik gabeko lur batera heltzen”. Hori izan zen sionismoaren lelo nagusietakoa bere burua definitzeko orduan. Baina XIX. mende amaieran Palestinara lehenbiziko kolono juduak heltzen hasi zirenean, jendea egon bazegoen, baita herriak eta hiriak ere, eta nagusiki arabiarrek ziren: palestinarrek.

1948KO GERRA

1948an David Ben-Gurion lehen ministroak Israelgo Estatuaren sorrera aldarrikatu zuen ofizialki Tel Aviv hiriburuan. Garai hura Israelgo historiaren “nukleo gogorra” da Pappéren esanetan: “Herri Juduaren erredentzio eta errekonozimendu prozesu teleologikoaren amaiera”. Sionismoak, mundu mailako testuinguru politikoa baliatu asmoz, Hirugarren Munduko askapen mugimendu izaera eman zion Israelgo Estatuaren aldarrikapenari. Erdigunean jarri zituen, batetik, Britainiar Inperioaren aurreko “independentzia”, eta mundu osoko juduen askapena “diasporaren uztarritik”. Palestinarrak eta ondoko herrialde arabiarrek kontakizunaren bazterrean utzi zituen. Kontakizun horretan Palestina-

rren “hondamendiak”, Nakbak, lekurik ere ez zuen. Nazio Batuen UNRWaren arabera, ordea, 711.000 palestinar kanporatu zituzten herrialdetik, eta egun 5,9 milioi dira errefuxiatuak.

Sionistentzako urte gatazkatsuak izan ziren haiek, gerra egin zieten britainiarrei eta inguruko herrialde arabiarrei. 1987an Simha Flapan kazetari israeldarraren *The Birth of Israel: Myths and Realities* (Israelen jaiotza: mitoak eta errealitateak) liburua argitaratu zen. Garai historiko hartako sionismoaren sei mito nagusiak aztertu eta errefusatu zituen Flapanek liburuan, horietariko lau jasoko ditugu jarraian.

Mittoa: Israelek NBEaren 1947 ebazpena onartu zuen, estatu juduarekin batera palestinarra aurreikusten zuena, lurraldearen erdia baino gehiago hartuko zuena. Errealitatea: Ben-Gurionek ebazpena estatu juduaren legitimazio gisa interpretatu zuen soilik, eta estatu horren mugak sionismoak erabakiko zituen. Mittoa: 1948an herrialde arabiar guztiak estatu juduarekin amaitzeko bat eginda zeuden. Errealitatea: Orduko potentzia arabiar nagusi Irak eta Transjordaniak akordioak bilatu zituzten estatu

berriarekin, eta Ben-Gurionek hitzarmen sekretua sinatu zuen Jordaniarekin, adostuz britainiarrak alde egitean bien artean banatuko zutela Palestina eta Zirkordia Jordaniaren kontrolpera pasako zela. Mittoa: palestinarrek etxe eta lurrak utzi zituzten beren eta herrialde arabiarretako liderren aginduak jarraituz, ondoren estatu juduaren aurka egiteko. Errealitatea: agintari sionistek erabaki zuten palestinarrek kanporatzea “bide guztiak baliatuta”. Mittoa: gerra amaituta Israelek eskua luzatu zien herrialde arabiarrei eta palestinarrei bakea eraikitzeko, baina uko egin zioten. Errealitatea: Egiptok, Jordaniak, Libanok eta Siriak akordioak bilatu zituzten, Israelgo Estatuaren onarpena jasotzen zutenak.

ETA PALESTINARRAK?

Kontakizun sionistak hitz batekin lotu ditu nagusiki palestinarrek (eta arabiarrek oro har): terrorista. Baina iruditeria hori palestinarrek talde armatuak eratu edo sionistek Israelgo Estatu sortu baino askoz lehenago hasi ziren elikatzen.

Bigarren *Aliya* edo Migrazio Handiko (1904-1917) kolonoetako askok harri-

HOLOKAUSTOAREN SIONIZAZIOA

Zerbaitek baldintzatzen badu Israelgo Estatuari inongo bainarik jartzea, Holokaustoa da hori. Edozein kritika antisemitismoaren eta genozidioaren konplizitate bilakatzen du sionismoak. 1990ko hamarkadan indarra hartu zuen korrante postsionista judua tabua apurtzen ausartu zen. Kontakizun sionista hankaz gora jartzen duten hiru errealitate azaleratu zituzten postsionistek.

Hasiera batean, nazien helburua juduak kanporatzea izan zen, ez sarraskitzea. Tarte horretan, sionismoak akordioak bilatu zituen naziekin, kanporatze politika funtzionala baitzitziaion sionismoari, Israelera kolono juduak eramateko. Esaterako, 1930eko hamarkadan, mundu osoko juduek Alemaniaren aurkako boikota deitu zuten, herrialdearen politika antisemitik salatzeke. Boikotera batu ez zen komunitate judu bakarria sionistena izan zen. Are gehiago, sionistek akordioa sinatu zuten Gestaporekin: "Mugimendu sionistak boikotarekin bat ez egitearen truke, Alemaniako juduei beren enpresak eta ondasunak kitatzeko eta

Palestinarantz abiatzean dirua berekin eramateko aukera emango zien". Akordioak eta begirunea amaitu egin ziren Hitlerrek sarraskitze politika abiatu zuela ohartzean.

Sionismoaren beste taktika bat erresistentziaren "sionizatzea" izan zen. Hainbat ghetto eta kontzentrazio esparrutan juduen matxinadak izan ziren. Altxatu ziren horiek ondoren Israelgo Estatu eraikiko zutenen eredu eta aurrekari gisa aurkeztu zituen, mugimendu sionistaren parte balira bezala. Baina altxamenduen arrazoiak askotarikoak izan ziren. Esaterako, Varsoviako ghettoan matxinatutako batzuk antisionistak ziren.

Altxatuen sionizazioaren txanponaren beste aldea, superbibienteekiko mespretxua izan zen. Mespretxua? "Estatu judua judu 'berriaren' kontzeptuan oinarritzen zen. Holokaustoaren biktimak, esaten zen, ardiak bezala joan ziren hiltegiara. Judu 'zaharrak' ziren", azaltzen du Pappek. Eta gaineratzen du: "Ezerk ezin zuen irudi negatibo hori arindu. Israelgo independentzia-gerran [1948] borrokatu ziren soldaduen herena Hitlerren superbibienteak izateak,

eta haietako batzuk, egiazki, matxinatu izana ere, ez zen aski hura hobetzeko". Mespretxu hori ez zen oztopo izan, ordea, superbibienteak sionismoaren mesedetan erabiltzeko beren borondatearen aurka. Bigarren Mundu Gerra amaitu berritan, Holokaustoa Israelgo Estatuaren beharrarekin lotu zuten sionistek. Munduari ziurtatu zitoen judu horien denen nahia Palestinan bizitza berria eraikitzea zela. Horretarako, mugimendu sionistak presio bortitza egin zien bizirik atera zirenei, oraindik Alemanian kanpamenduetan zeudela, desio hori sinatu edo publikoki adierazi zezaten. Kanpamenduen ardurazuten komandante britainiar eta estatubatuarren esanetan, ordea, gehienek Britainia Handira edo AEBetara joateko desioa zuten.

Holokaustoaren erabilpena gaur eguneraino luzatuko litzateke: "Agintariak gizarte judu eratu berria birtraumatizatzen saiatu ziren, eta bigarren Holokausto bati buruzko etengabe beldurra bizirik mantentzen". Zein helbururekin? Gizartea "larritasun etengabe" mantenduta, "nazio bat etengabe armetan egotera behartzea".

Auschwitzeko kontzentrazio esparrua, 1944.



duraz hartu zuten palestinarren *aurkikuntza* Palestinan –gogoratu leloa: “Lurrik gabeko jende baten mugimendua, jenderik gabeko lur batera heltzen”–. Herri Juduaren aberrian egon behar ez zuten “atzerritar” gisa deskribatu zituzten palestinarrak, jende “basa”, “desatsegina”, “arrotza”, bere hizkuntz, janzkera edo ohiturengatik. Britainiarren Mandatu garaian (1917-1948), palestinarrak *raa hola* (“gaixotasun zitala” hebreeraz) izendatzea ohiko bilakatu zen, eta jada orduan sionistek “serioski baloratu” zuten arabiarrek herrialdetik kanporatzeko aukera.

1917an, Balfour Adierazpenaren ostean, protesta arabiarrek piztu ziren herrialdean. Sionismoaren arabera, orduan hasi zen “terrorea seriooki eragiten”, eta ordutik aurrera *increscendo* jarraitu du etenik gabe. Zer dela eta? Ez dago azalpenik, sionismoaren arabera. Ez dago inongo loturarik bortzikeria kolonialaren eta palestinaren edozein motatako erresistentziaren artean (erresistentzia oro baita terrorismo). Kontrara: juduek eskua luzatzen diete palestinari, eta terrorismoa jasotzen dute ordainetan. “Arabiar kulturaren eta bizitzaren berezko ezaugarria” baita terrorismoa.

Kontakizun sionistan, palestinaren aurkako gerra erantzun defentsiboa da. Batzuetan sionistentzako ere mingarria den erantzuna, baina ezinbestekoa. Horri egiten dio erreferentzia Israelgo lehen ministro ohi Golda Meierren esaldi arranguratua: “Ez diegu arabiarrei inoiz barkatuko beraiei egitera behartu gintuztena”.

ETA JUDU ARABIARRAK?

Arabiarrekiko herra herrialde arabiarretatik Israelera heldutako juduen aurka ere zuzentzen da. Holokaustotik bizirik irten zirenekin egin bezala, sionismoak bi taktika itxuraz kontraesankorrak baina mamiz osagarriak erabili ditu: Israelgo Estatura *bueltatzeko* presio egin; behin helduta, baztertu.

1952an mugimendu sionistako bi kide klandestino lepotik eskegi zituzten Iraken. Interes juduen aurka lehergaiak jartzea leporatuta epaitu zituzten, ustez judu irakiarrei beldurra sortu eta Palestinara joatea erabaki zezaten. Irakeko judu ‘zapalduak’ Israelgo Estatura eramateko operazioa, Holokaustotik bizirik irten zirenak eramatearen tamainako pisua du kontakizun sionistan, Pappék azaltzen duenez.

ARAZO EUROPARRA

Bidegabea litzateke Israel ulertzeko saiakerari orriak ematean Europari lerro batzuk gutxienik ez eskaintzea. Israel Europak palestinari sortutako arazoa baita.

Gazaren aurkako azken genozidioa hasi eta aste batzuetara Carlos Fernández Liria filosofoak Santiago Alba Rico mundu arabiarrean aditua elkarrizketatu zuen Youtubeko bere kanalean. Palestinaren aurkako genozidioa “Europaren antisemitismoaren fruitua eta jarraipena” da, Albaren iritzian. Antisemitismo hori mendetakoa da (Inglaterra juduak kanporatu zituen XIII. mendean, Espainiak 1492an...), “kanporatze eta sarraskitze proiektu europar” bati erantzuten dio eta une batzuetan lehenetsi du kanporatzea, bestetan sarraskitzea, edo biak erabili ditu aldi berean. “Kanporatze proiektuaren izenetako bat da sionismoa”, filosofoaren esanetan, eta azaltzen du, hain zuzen ere, sionismoa hasiera batean “oso txarto” hartu zutela judu askok, kanporaketa proiektu horren “konplize” zelako.

Europak une jakin batetik aurrera soilik onartu zituen juduak europar gisa: Europatik alde egin zutenean. Israelgo Estatuaren proiektua bi baldintzatatik bereizezina da, Albaren esanetan: “Juduok Europatik alde egiten dugu; behin kanpoan zuen gotorleku bihurtuko gara Ekialde Ertainean”. Europak bere erantzukizuna garbitzeko egin dezakeen okerrena, ordea, “bekatuak esternalizatzea” da, “Israelgo Estatuak beste herri batzuekin egin dezan zuk juduekin egindakoa”.

Israeliek mezu bikoitza zuzendu zion nazioarteari: palestinarek borondatez egiten dute alde Israeletik; munduko juduak borondatez datoz. Palestinaren eta Holokaustotik bizirik irten zirenen borondateaz hitz egin dugu jada. Herrialde arabiarretan bizi ziren juduena Yehouda Shenhav Tel Aviveko soziologoak ikertu zuen. Shenhavek salatu zuen, migratzaileen lekukotza zuzenak hartuta, sionistek “basakeria eta jazarpena” baliatu zituztela jendea beren herrialdeetatik Israelera joan zedin. Helburua bikoitza zen: balantza demografikoa juduen alde jartzea palestinaren aldean, eta kanporatutako palestinaren lan esku merkea ordezkatzeko. Izan ere, mizrahiak (herrialde arabiarretatik heldutako juduak) baztertuak izan dira Israelen estatuaren sorreratik bertatik, agintean dauden askenazien partez (Europa Ekialdetik heldutakoak). Mizrahiak ez ziren fida-tzekoak, arriskutsuak ziren, eta haiek “desarabizatzea” lehenetsuneko helburu aitortua bihurtu zen. “Gai izango al gara inoiz etorkin horiek Mendebaldeko zibilizazioaren mailara igoarazteko?”, adierazi zuen Golda Meierrek. “Ez balitz izan Holokaustoagatik eta 1948 ondoren Mendebaldetik heldutako migratzaileen kopuru urriagatik”, dio Pappék, sionistek nahiago zuketena judu arabiarrek gabeko Israel: “Judutarrek Israelera heldu ahala desarabizatauta eman zitzaion konponbidea ataka horri”.

POSTSIONISMOTIK NEOSIONISMORA

Sionismoaren proiektu politikoa, bere balore eta mundu ikuskerak, erabateko hegemonia izan dute Israelgo juduen artean, estatua sortu zenetik gaur egunera arte. Eskuinean zein ezkerrean: ez da ahaztu behar Alderdi Laborista egon zela agintean 1948-1977 aldi osoan. Baina, edozein proiektu kolonialetan bezala, honetan ere egon dira barne disidenteak hasieratik, *traizioa* garesti ordaindu duten salbuespen urriak. 90eko hamarkadan, ordea, egoera aldatu zen.

Mugimendu postsionistak ikusgarritasuna lortu zuen 90eko hamarkadan. Bertan barnebiltzen ziren sionista kritikoetatik antisionistetara. Garai hartan, barne zein kanpo arrazoiak tarteko, postsionismoak gaitasuna izan zuen sionismoaren hainbat mito auzitan jartzeko, eta eztabaida bere eremuetatik



kanpora zabaltzeko. Postsionistenak dira, hain zuzen ere, erreportaje hone-tan sionismoaren kontakizun ofizialari kontrajarri zaizkion ikerketa eta ikuspuntuak. Bizitza laburra izan zuen mugimenduak, baina: 2000. urtean Bigarren Intifada lehertu zen, eta 1948tik ikusi gabeko palestinarren mobilizazio masiboek “ondorio suntsitzailea” izan zuten postsionismoan. “Aste gutxiren buruan batasunaren diskurtso berriak denak irentsi zituen”, postsionista eta antisio-nista ia denak barne.

Hamarkada bereko bigarren erdialdean sionismoaren bertsio berri bat garatzen hasi zen Israelen: neosionismoa, “balio sionisten bertsio guztiz nazionalista, arrazista eta dogmatikoa”, Pappéren arabera. Shalem Zentroa izan zen abiapuntua, 1996an sortua lehen ministroaren bulegoko eta AEBetako zenbait judu mezenasen diruarekin.

Pappéren esanetan, hasiera batean Shalem Zentroa eta bere kideak “esoterikoak” edo “patetikoak” ziren judu israeldar gehienen begietara; hamar urte igaro aurretik, “beren agenda XXI. mendeko Israelen ideia” bilakatu zen. 2000ko hamarkadako hasierarako, neosionismoaren balore eta ikuspuntuak nagusi ziren hezkuntzan, politika instituzionalean edo eremu legegilean.

Sionismo klasikoa eta neosionismoa bat zetozen, funtsean, proiektu kolonialean eta palestinarrei eman beharreko tratuan. Batasuna sendoa zen, baina ez

Israel barneko borroka bi apartheid ereduren artekoa da: bata erlijiosoa, bestea laikoa

erabatekoa: “Sionismo klasikoa eta neosionismoak politikoki ondo kolaboratzen zutela zirudien arren, kulturalki talka egiten zuten”. Sionismo klasikoa modernitate mendebaldarraren, Ilustrazioaren, humanismoaren edo laikitutasunaren tradizioan kokatzen zuen bere burua; neosionismoak erlijio judua eta ikuspegi teleologikoa jartzen zituen erdigunean.

Hori da Pappék deskribatzen duen 2014ko Israel, liburua argitaratu zen urtea. Baina 2024an gaude.

ISRAELGO BARNE GERRA ZIBILA

2023ko azaroaren 19an, Hamasen urriaren 7ko erasotik hilabete eta erdira, hitzaldia eman zuen Pappék AEBetako Berkeleyko Unibertsitatean. Mintzaldiaren lehen zatian erasoaren aurretik Israelgo jendartearen egoeraz aritu zen historialaria. Hilabeteak ziren astebururo ehunka milaka israeldar irteten zirela

manifestazioan, Netanyahuaren gobernuak burutu nahi zuen erreforma konstituzionalaren aurka. Erreforma gauzatzekotan, “botere politikoei sistema judizialaren gaineko erabateko kontrola izango lukete, eta eremu publikoa askoz ere kontrolatuago egongo litzateke talde judu mesianiko eta erlijiosoen aldetik”, azaldu zuen historialariak.

Israelgo juduak “barne gerra zibil” betean zeuden urriaren 7aren aurretik, Pappéren ustetan, “Judeako Estatuaren eta Israelgo Estatuaren” proiektuen artean. Judeako Estatuaren proiektua Cisjordaniako kolonoek bultzatzen dute nagusiki, “judaismo mesianikoaren, fanatismo sionistaren eta arrazakeriaren konbinazioa”. Israelgo Estatuarena Tel Aviv hiriburuak ordezkatzeko du, “pluralista, demokratikoa, laikoa, eta garrantzitsua, mendebaldarra edo europarra”. Ematen du, hortaz, aurretik aipatutako sionismo klasikoa eta neosionismoaren arteko arrakalak amildegi bihurtu direla azken hamarkadan.

Baina, proiektu kolonialaren inguruko batasunak erabatekoa izaten jarraitzen du. Gerran dauden bi aldeek erantzuna berdina da okupazioaz galdetzean: gaiak ez du garrantzirik, ez dagoelako arazorik. Azken lau urteetan lau hauteskunde egon dira Israelen. “Inork ez zuen aipatu palestinarren gaia edo okupazioa. Israeldarrei ez zitzaien eskatu gai horri buruz bozkatzeko, jada ez baitzen arazo”. Israel barneko borroka “bi apartheid artekoa” da, beraz: bata erlijiosoa, bestea laikoa.

Okupazioa ez zen arazo, Hamasek eraso egin arte. “Erasoa hain izan zen bortitza, hain suntsitzailea, ezen barne eztabaida guztiak ahaztu egin baitira, eta jende guztia dago batuta armadaren inguruan, Gazako Zerrenda inbaditzeko egungo planari ekiteko eta jada abian zegoena sakontzeko: politika genozidak. Ilusio optiko bat dela uste dut, Israelgo barne gatazka ez dela desagertuko. Itzuliko da. Ez dakit noiz, baina itzuliko da”.

Bitartean, genozidioaren azelerazioa disimulatu gabea pairatzen jarraitzen dute palestinarrek, telebistek zuzenean emana, Israelgo jendartearen eta Mendebaldeko estatu eta agintari nagusien babesarekin. Eta *konpondu beharreko arazo* dira, soilik, beren egoera are gehiago larriagotzen duten *arazoak* sortzen dituztenean, urriaren 7an gertatu moduan. Gorpil zoroa apurtzeko zer egin aspaldi proposatu ziguten palestinarrek: boikota. ●

MISSAK MANOUCHIANEN LORRATZA

Euskal partisanso komunistak nazien kontra

Otsailaren 21ean Missak Manouchian eta Melinée Assadourian senar-emazte armeniarren gorpuzkiak Pariseko Panteoian sartuko dituzte ohore guztiekin. Poeta eta partisanso komunista, Manouchianek ekintza ikusgarriak gidatu zituen Bigarren Mundu Gerran okupaturiko Frantzia, naziek harrapatu eta hil zuten arte. Frantziako erresistentzia komunistan euskal militante ugarik ere hartu zuen parte, baina beraien historia oraindik hizki larriz idatzi gabe dago.

 ETXAHUN GALPARSORO

80 urte beteko dira Missak Manouchian fusilatu zutela Mont-Valerian gotorlekuan beste 21 burkiderekin. Naziek, oso ezagun egin zen kartel gorri bat kaleratu zuten exekuzioak iragartzeko: “Krimenaren armada” leloa zuen idatzita, eta toki guztietan zabaldu zuten. Manouchianen taldeak denbora zerman erresistentzia armatuko ekintza ikusgarriak egiten, eta okupatzaileek propagandarako baliatu zuten haiek harrapatu eta heriotzara kondenatzea.

Datorren otsailaren 21ean Pariseko Panteoian ehortziko dute Manouchian, emazte Melinée Assadourianekin batera –hau ere erresistentziako kidea-. Frantziako pertsona ospetsuei soilik eman ohi zaien tokian egongo dira hortaz, Voltaire, Victor Hugo edo Marie Curieren ondoan. Bigarren Mundu Gerran nazien kontra borrokatu ziren atzerritarrei egindako aitortpen gisa hartu dute askok

Emmanuel Macronen gobernuaren erabakia.

“HERRITARTASUNA MEREZIMENDUZ IRABAZI DUGU”

Manouchian eta Assadourian senar-emazteak armeniarrek ziren, mende hasierako genozidiotik bizirik irten eta Frantziara erbesteraturikoak. Manouchianek armeniar literaturarako eta poesiarako gaitasun handia erakutsi zuen, eta horrez gain ideia komunistentekin ere egin zuen bat. Hala, Armeniaren Laguntzarako Batzordean eta Frantziako Alderdi Komunistan (PCF) izena eman zuen.

Ez da harritzekoa, beraz, naziek Frantzia bereganatu zutenean haien kontra aritzea partisanso komunistentekin FTP edo Franc-Tireurs et Partisans (Frankotiratzaile eta Partisansoak) erakundearen zehazki FTP-MOI azpitaldean. MOI hizkiek Main d’Ouvre Immigrée esan nahi



dute, immigranteen eskulana, eta horrek garbi adierazten du bere osara zein zen. Manouchianek atzerriko kideak biltzen zituen taldea zuen bere agindupean FTP-MOI horietan, asko errumaniar eta hungariar judutar iheslariak ziren, baita beste jatorri batzuetakoak ere.

“Manouchianen taldeak” –izen horrekin egin zen ezagun– 1943an ekintza ikusgarriak egin zituen Parisen. Esaterako, Julius Ritter koronela hiltzea lortu zuten, Europa osoan nazientzako lan esklaboa antolatzen arduraduna zen Fritz Sauckel agintari boteretsuaren laguntzaile estua.

Baina nazien inteligentzia orokorrak sarekada batzuk egin ostean, urte hartako azaroaren 16an atxilotu zituzten gehienak –Assadourianek ihes egin ahal

izan zuen ezkutuan-. Manouchian eta bere lagunak torturatu egin zituzten eta Geheime Feldpolizien Wehrmachteko polizia militar sekretuaren esku geratu ziren.

Hurrengo urteko otsailaren 19an, bera eta beste 22 lagun heriotzara kondenatu zituen Alemaniako auzitegi militarrek, Parisko Continental hotelean kazetarien aurrean egindako epaiketa parodia batean. Orduan, armeniarrek burua jiratu eta honakoa bota zien: “Zuek frantses herritartasuna herentziaz daukazue, guk mehezimenduz irabazi dugu”. Hortik bi egunera fusilatu zituzten denak, bat izan ezik: Olga Bancic Errumaniako aktibista judutarra Alemaniara eramane zuten Stuttgarteko presondegira, eta hilabete batzuk geroago hil zuten, burua moztuta.

NAZIEN BIKTIMA KUTTUNAK

1939ko abuztuan gerra hastear zela, Molotov eta Ribbentropen elkarri ez erasotzeko itun sobietar-germaniarra sinatu zuten, eta PCFko Politburoak onartu egin zuen. Horrek aro ilun bat ekarri zuen alderdi horrentzat, kide asko banatuta baitzeuden –sobietarren miresle ziren, baina Hitlerren faxismoaren kontra zeuden-. 1941eko *Bizargorri* operazioak egoera guztiz aldatu zuen ordea. Alemaniarrek Sobietar Batasuna inbaditzeko erasoak jo zutenean, PCFk bere ildo politikoa berraztertu zuen eta erresistentziari ekin zion. Orduetik aurrera komunistak alemaniar errepresalia-operazioen biktima kuttunak bilakatu ziren.

Frantzia okupatuan talde ugari aritu zen borrokan Bigarren Mundu Gerran, baina alderdi komunistarena aitortu izan dena baino garrantzitsua goa izan zen, bere beso armatuen bidez: hasieran Organisation Spéciale deiturikoan eta gero FTPekin. “Triangelu” itxurako komando-talde txikietan zeuden antolatuta, hartara, norbait atxilotu eta torturatzen bazuten, lagun pare bat baino ezin izango zuten *traizionatu*.

Ipar Euskal Herrian ere izan ziren halako komandoak, nahiz eta beren militanteei buruzko aipamenik apenas dagoen. Jende ugari hartu zuen parte: Iparraldean jaiotako komunistak, Hegoaldetik joandako emigranteen seme-alabak, 1936ko Gerrako erbesteratuak... Gainera, badakigu Euskal Herrian emakume ugari ere

Manouchian Missak

lan handia egin zutela aurretik zeuden talde klandestinoetan, nahiz eta FTPetan haien presentzia adierazten duten dokumentu askorik ez dugun.

Ekintza-batasunerako deiak gorabehera, FTPek ez zuten harreman gehiegi izan De Gaulle jeneralak biltzen zuen erresistentziarekin, Ipar Euskal Herrian behinik behin. Antagonismo ideologikoak eta helburuen inguruko desadostasunek eragin zuten zatiketa, eta elkarren arteko mesfidantza horrek, gainera, arma eskasia ekarri zien komunistei, baita geroago gerra amaitzear zela Barnealdeko Frantziar Indarrak (FFI) erakunde nagusian integratu zirenean ere.

EUSKAL IHESLARIAK, PARTISANO IKUSEZINAK

Alemanen okupazioa hasi bezain pronto Bokale eta Biarritz inguruan erresistentzia-gune bat sortu zuten Iparraldeko komunistek, baina ez zen gehiegi nabarmendu. Aldiz, euskal kostaldeko FTPen benetako motorra Hegoaldeko eta Espainiako Estatuok errepublikar erbestertatuak izan ziren, nahiz eta frantziar historiografiak ikusezin bihurtu dituen.

400 kide inguruko talde bat osatu zen Frantziako hego-mendebalde osorako, Fernando Vázquez eta Victor Lasaren zuzendaritzapean, eta Francisco Tellechea ofizialak hartu zuen Baiona-Biarritz-Hendaia sektorearen ardura.

Tellechea Baionara migratu zuen donostiar familia bateko semea zen eta ezin konta ahala gune erresistente antolatatu zituen 1941eko amaieran erakundearen sartu eta 1943ko apirilean atxilotu bitartean: sabotajeak aztertu, arma-gordailuak antolatu, inteligentzia datuak bildu, prentsa klandestinoa zabaldu, mugalari lanak egin... Baina azkenean, berak ehundutako sareko hogeiki kide inguruk 1943tik aurrera kartzelan edo Alemaniako kontzentrazio-esparruetan amaitu zuten, batez ere Buchenwalden.

Urte hartan, 1943an, Iparraldeko euskal militante komunistek beste talde bat sortu zuten Bokale, Tarnos eta Angelu inguruan, kasu honetan Forges de l'Adour lantegi ezagunean zegoen sindikatuaren gertukoa zen taldea eta eskala handiko bi ekintza handi egin zituen. Lehenik, punta-puntako teknologia zuen Leduc markako hegazkin-motorra lapurtu zuten Latécoèrereko fabrikatik, eta ezkutatu egin zuten.

Are ikusgarriagoa izan zen uztailaren 13an Biarritzen egindakoa: Hispano-



Presoak Buchenwalden, 1940an. WIKIMEDIA COMMONS

TELLECHEAREN SAREA

Francisco Tellechea Aranguren donostiarrak Franc-Tireurs et Partisans (FTP) erresistentzia komunistaren barruan sare bat sortu zuen Ipar Euskal Herriko kostaldean, Hegoaldeko eta Espainiako Estatuok errepublikar iheslariekin. 1941etik 1943ra jardun zuten, harik eta asko harrapatu eta Alemania naziko kartzeletan amaitu edo Buchenwald bezalako kontzentrazio esparruetara deportatu zituzten arte. Haiek dira haietako batzuen izenak: Lucio Alvareda, José Alzuri, Guillermo Alzuri, Antonio Berbel, Mariano Busto, Luis Dupain, Juan José Esnal, Juan Fraile, Alfonso García, Pedro García, Jean Hazen, Eugenio Halli, Santiago Huerta, Felix Martínez, José Llas, Eusebio Michelena, Manuel Michelena, Antonio Otermin eta Josefa Tellechea.

Suiza enpresak Reine-Nathalie etorbideko bere garajeen 400 Junker hegazkin-hego zituen, Alemaniara bidaltzeko prest. Biarritzeko René Saubese eta Kanboko Jean Baptiste Amestoyk gidaturik, komando batek erabat suntsitu zituen. Hiri osotik ikus zitekeen sute erraldoia eta lekua zaintzen zuten soldadu alemaniaren artean izua piztu zen.

PROPAGANDA, SAREKADAK ETA KONTENTRAZIO-ESPARRUAK

Beste gune aktiboenetako bat Bordelekoa izan zen, eta hiri hartako FTPen 3. taldea José Goytiaren aginduetara zegoen, jaiotzez madrildarra, baina izatez Mungia. Celestino Pajares bilbotarra zuen lagun, eta aipatzeko moduko ekintza bat egin zuten 1942ko urrian.

Garai hartan Gestapok eta frantziar polizia kolaborazionistak errepresio basatia hasi zuten Gironda inguruko erresistentziaren kontra. Goytia eta Pajaresen FTPko taldekideek, kikildu beharrean, nazien kontrako propaganda zabaldu zuten hiri osoan, eta alemaniar patruila zenbaiti ere eraso zieten. 1943ko urtarrilaren 29an atxilotu zituzten, eta sarekada horretan Eugenio González tolosarra eta Jesusa del Campo nafarra ere erori ziren.

MANOUCHIANEN AZKEN HITZAK

Missak Manouchian 1906ko irailaren 1ean jaio zen Hisn-i Mansuren, Armenian. Bederatzi urte besterik ez zituela, armeniar genozidioaren hasieran, aita hil zuten armak eskuetan zituela, eta ama ere handik gutxira hil zen gosez. Missak eta bere anaia Garabed, familia kurdu bati esker atera ziren bizirik. 1925ean bi anaiak Marseillan lehorreratu ziren eta ondoren Missak Parisko Citröen lantegian hasi zen lanean tornulari gisa; Garabed gaixotu eta hil egin zen 1927an.

Autodidakta izaki, Missakek berehala erakutsi zuen literaturarako zaletasuna, eta 1925ean *Vers la France* izeneko poema idatzi zuen. Gainera, besteak beste Armeniari Laguntzeko Batzordearen *Zangou* egunkariko zuzendari ere izan zen, eta Aram Andonian kazetari eta armeniar genozidioaren kronikari ezagunarekin harremana izan zuen. Missak Sorbonako unibertsitatean ibili zen literaturako irakasgaien entzule gisa, Kégham Atmadjian lagunarekin; hala sortu zuten elkarrekin *Tchank* (Ahalegin) aldizkaria. Armeniar literaturari buruzko lanak ez ezik, armenierazko itzulpenak ere argitaratu zituen.

1944ko otsailaren 21ean, atxilotuta zegoela, azken gutuna bidali zion emazte Melinée Assadouriani, eta honela zioen amaieran: "Barkatzen ditut min eman didaten guztiak, edo min eman nahi izan didatenak, bere larrua salbatzeko traizionatu gaituena eta saldu gaituztenak izan ezik". Azken hitz horiek interpretazio askotarako abagunea eman dute, Manouchian eta bere taldekideak naziek nola harrapatu zituzten azaltzen omen dutelako.

Melinée Assadourian

Iparralderago, Cognac hirian, Lucio Vallina eta Marguerite Maurin senar-emazteak buru-belarri sartu ziren FTPetan, okupazioaren aurkako erresistentzia komunistan. Lucio Ziortza-Bolibarkoa zen, emigrante familia batekoa, eta erbesteraturiko militante antifaxista espainiarrak gainbegiratzen zituen. Margueritek, aldiz, borrokalarietara aterpea ematen zien, lotura lanak egiten zituen eta inguruko etxaldeen armak ezkutatzeko ibiltzen zen. Haien seme Jeanek ere laguntzen zien ekintza klandestino horietan, hamabost urte besterik ez zituen arren.

Baina militantzia hori 1942ko uztailaren 28an moztu zen errotik. Salaketa baten ostean senar-emazteak eta bere hiru seme-alabek Gestaporen kalabozoetan amaitu zuten. Lucio irailaren 21ean fusilatu zuten eta, Marguerite berriz, Auschwitzera eraman eta han hil zen. Jean seme zaharrenak Sachsenhausen esparruan amaitu zuen 1945ko apirilean askatu zuten arte.

Badugu FTPko kide ziren euskal herriarren kasu gehiagoren berri. Francisco Izagirre altsasuarra, adibidez, Lot departamentuan desagerrarazi zuen Gestapok hainbat kideekin batera: auto batean ezkutuko toki batera zihoa-

Ipar Euskal Herrian ere izan ziren FTPetako komandoak, nahiz eta haien militanteei buruzko aipamenik apenas dagoen. Jende ugari hartu zuen parte: Iparraldean jaiotako komunistak, Hegoaldetik joandako emigranteen seme-alabak, 1936ko Gerrako erbesteratuak...

zenez atxilotu eta ez ziren inoiz komisariara iritsi.

Lola García bilbotarra -Pablo Nerudaren idazkari izandakoa Txileko konsulatuan-, berriz, Fresneseko espetxetik Ravenbrückeko esparrura eraman zuten, krudelki torturatua izan ostean. PSUCeko buruzagi Joaquim Olaso senarrarekin batu zen erresistentzia komunistara eta 1942an atxilotu zituzten

Parisko euren etxean, beste lagun batzuekin bilduta zeudenean.

MANOUCHIAN BEZALA HIL ZUTEN SESTAOARRA

Missak Manouchianen patu berbera izan zuen euskaldun bat ere badago historia honetan: Galo Bordeje, Sestaoko semea. Erbesteratua zen eta Paris kanpoaldeko metalurgia-langitegi batean aritzen zen. Ezer gutxi dakigu berari buruz, baina Manouchian baino egun batzuk geroago hil zuten toki berean, Mont-Valerianen.

Hauek guztiak FTPetako euskal militantziaren erakusgarri baino ez dira. Euren arrastoa askoz zabalagoa eta ugariagoa da: Britainia, Marseilla, Savoia, Okzitaniako Tolosa eta antzeko hirietera zabaltzen da.

1945ean, Frantzia naziengandik askatu ondoren, Gerra Hotzaren testuinguruan erresistentziaren oroimen gerra piztu zen, nor nabarmenduko, eta De Gaulleren ikuspegia gailendu zen gainerakoengandik. Hala, partisano komunisten memoria ahanzturan geratu zen, are gehiago Hego Euskal Herriko militanteena, ikusezinetan ikusezinenak. Orain, Missak Manouchianekin zabalduko bideak balio lezake historia hori berreskuratzeko. ●

“ ”

Globalizazioaren oldarraldi handiei aurre egiteko diskurtsoak falta zaizkigu

Júlia Ojeda, literatura-kritikaria

Júlia Ojeda literatura-kritikariaren ahotsa garrantzitsua da gaur egungo Kataluniako hedabideetan, eta prozesu independentistaren osteko Katalunia birpentsatzen ari den ardatz ugarietako batera hurbiltzen laguntzen digu. Matriotes-eko kide ere bada, “feminista eta nazionalista” gisa definitutako gunea.

 CIRA CRESPO  JORDI BORRÁS

Katalunia azaltzen laguntzen duten koadro bat, abesti bat eta liburu bat aukeratzea proposatzen dizut.

Koadroa, *La Masia*, Mirórena. Koadro horrek oso ondo hitz egiten du, ez hainbeste gaur egungo Kataluniaz, baizik eta nik nahiko nukeen Kataluniaz, orain aldarrikatu behar dugunaz. Mirók artista figuratibo gisa bete zuen etapari amaiera eman zion koadro honek. Edo bestela esanda, gero erreferente unibertsala izango den Miró hori, esan liteke, koadro honetan jaio zela. Mirórentzat *La Masia* ez da inguratzen duen herrialdea, bere pentsamenduaren sorlekua baizik, eta horrek unibertsal bihurtzen du.

Eta *La Masia*-ren indar teluriko horrek Roger Masen kanta telurikoak gogorarazi dizkit: *Cançons Tel·lúiques*. Nire ustez, sinboloen ingurukoa da zain daukagun eztabaida: zein den babestu

nahi dugun herria, zeinen seme-alaba sentitzen garen... globalizazioaren erasoiei aurre egin behar dien Katalunia. Bi erreferente horiek bat datoz gure irudimen nazionalekin lotzen gaituzten musika eta sinbolo-irudikapen sendoak emateko beharrarekin. Gehien behar duguna dela iruditzen zait.

Eta liburua, *Sota el signe del Drac* (Heresugearen zeinupean), María Merce Marçalen prosa kritikoen bilduma bat da. Batez ere interesatzen zaizkit berak ezartzen dituen genealogiak, bai gure tradizioakoak, bai Europako beste tradizio batzuetakoak. Marçal ikono katalana da, eta pentsamendu interseksionala garatzeko balio du. Afroamerikarrak teoria interseksionalak egiten ari ziren bitartean, Marçal ere horri buruz pentsatzen ari zen. Hain zuzen, *Sota el signe del Drac* garrantzitsua da gure proiekturako, Matriotes-erako, alegia.

Martxoaren 8an Matriotesen manifestua atera zenuen, Marta Roqueta eta Anna Punsodarekin batera, eta zortzi hedabidetan argitaratu zen. Azaldu nola sortu zen ideia.

Hirurok antzeko interesak genituela antzeman geniolako sortu zen, bai nazio kontuetan, bai feminismo kontuetan, eta hirurok eztabaidarako guneak falta genituelako, feminismoaren eta nazionalismoaren arteko elkarguneari buruzko elkarrizketa eguneratzeko. Manifestuarekin kolpea eman nahi genuen mahai gainean, eta esan: “Nahitaez hitz egin behar da honi buruz herrialdearen [Katalunia] elkarrizketa orokorrean; hau elkarrizketan sartzen ez bada, huts egingo dugu”.

Zer moduzko errakzioak izan ditu? Pozik gaude erreakzioekin, gogobete

gintuzten, oro har, baina, era berean, uste dugu oraindik ere badela joera lotsati bat, *nazionalismo* terminoa deserrosoa delako. Baina uste dugu eremu nazional feministak potentzial handia duela.

“ ”

***Estatuaren barruko
kolonialismoaren auziaz
ez da inor gogoratzen***

Nazionalismo terminoa deserrosoa bada, zergatik erabiltzen duzue?

Gatazka politikoa gatazka nazionala delako, eta, beraz, nazioaren oinarriko harremanari eutsi behar diolako. Emantzipazio prozesuak irekia eta zabal behar du, heterogeneoa, baina nazionala. Gainera, katalanok badugu lubakiko nazioari, okupaturiko nazioari, dagokion pentsamendu nazionalistaren tradizio bat, balio handikoa eta oso interesgarria eta, hori ere bai, prozesu independentistan urtetan aintzakotzat hartu izan ez dena.

Dona i nació (Emakumea eta nazioa) manifestuan, 1982ko hartan, niri asko gustatzen zaidan termino bat erabiltzen da, “inorena ez den lurra”. Herri gutxituetako emakume feministok hartzen dugun espazioa da eta izan liteke emakume espainolistent okupatu eta gutxietsi dezaketena edota, alderantziz, gerorrek konkistatuko duguna. Guk ez badugu espazio hori hartzen, beste norbaitek egingo du.

Feminismo dekolonialaren korrante berrietatik oso argi dute zenbait arazori feminismo zuritik ezin zaiela erantzun.

Gu nola kokatzen gara auzi horretan? Europarrak gara, zuriak gara, baina kultura eta nazio-zapalkuntza ere jasaten dugu... Hori guztia pentsatu duzue Matriotesetik?

Bai, hain zuzen, nik uste dut Katalunia-ko egungo feminismoaren urgentzietako bat, eta ez feminismitik bakarrik, tradizio kolonial eta postkolonialaren mapa teoriko eta kontzeptuala pixka bat txukuntzea dela, ordena pixka bat jartzea. Pentsamendu-esparru hori ez dugu hemen aplikatu, edo ez dugu aplikatzen jakin, nahiz eta zantzu ba-

“Feministok, zentzu zabalean (LGTBI borroka, trans, eta abar), aspaldi gaude ‘lotsagabetuta’; orduan, zergatik kostatzen zaigu hainbeste nazio-identitate zapaldu bezala ‘lotsagabetzea’?”

tzuk izan. Eta uste dut, alde horretatik, gabezia analitiko handia dugula.

Argi baduzu nola funtzionatzen duen gaztelaniaren inposaketak Konstituzioan eta Estatutuan, kultura-gaietan erregimen-eskualdatzea nola egiten den aztertzen baduzu, oso argi dago zapalketa- eta menderatze-harremana dagoela, eta hori kolonialismo terminoetan irakur daitekeela.

Orain, independentzia erreferendumen ondoko estatuaren erantzunaren garaian, argi eta garbi ari gara ikusten hori Katalunian, baina 1980ko eta 1990eko hamarkadetan ezin genuen ikusi, normalizazio autonomikoaren prozesuak indar handia zuelako, eta 1980ko eta 1990eko oasi pujolistaren eraikuntza oso garrantzitsua izan delako. Urte horietan, erakunde autonomikoetatik ez dagoen botere bat fikzionatzen da, eta horrela herrialdea bakean mantentzen da. Hizkuntza-gatazka ezkutatu eta elebitasunaren ideia normalizatzeko logikak onartu ziren, eta, horren ondorioz, herrialdearen kultura-egoera kontatzeko beste modurik garatzen ez zen utzi.

“ ”

Katalunian, literaturak, askotan, estatu-egituren dimentsioa hartzen du, Generalitate autonomikoaren beraren egiturak txiki uzten dituen

“ ”

Berez katalanez idatzitako testuan gaztelaren presentzia naturalizatzeko joera handitzen ari da

Kolonialismoaren adibide bat eman diezagukezu?

Har, adibidez, Joan Lluís Lluís, Roselloneko idazlea. *Els invisibles* [ikusezinak] liburuan Ipar Katalunian hizkuntza-ordezkapen eta identitate-ordezkapen prozesua nola bizi izan duen azaltzen du, eta liburu hori kolonialismoaren ikuspegitik baino ezin da irakurri. Eta Joan Lluís Lluisek kontatzen diguna Valentzian edo Balear Uharteetan gertatzen ari denarekin lotzen baduzu, PP eta VOXen politika *lenguizidekin*, alegia, ondorio berberetara iristen zara. Azkenean, kolonialismoaren gaian boterea nork daukan eta menpean nor dagoen azaltzen da, eta agerikoa da valentziar edota balear gisa existitzen jarraitzeko aukeraren ukazioaren aurrean gaudela.

Zer gertatzen da, ordea? Bartzelonan pentsamendu dekolonialari buruzko jardunaldiak antolatzen hasi, eta Latinoamerikako pentsalari handiak ekartzen dituztela, ingelesez edo gaztelaniaz arituko direnak, eta estatuaren barruko kolonialismoaren auziaz ez dela inor gogoratzen. Uste dut koldarkeriagatik dela, eta baita ezjakintasunagatik eta



produkzio intelektual faltagatik ere.

Horregatik da Literatur Ikasketen karrera erdia gazteleraz, eta horregatik erabiltzen da matrize frankofonoa eta anglosaxoia. Kataluniako erreferente gutxi daude, eta, azkenean, ondorioz, pentsamenduaren markoa espainiaratu egiten da.

Feministok, zentzu zabalean (LGTBI borroka, trans, eta abar), aspaldi gaude "lotsagabetuta"; orduan, zergatik kostatzen zaigu hainbeste nazio-identitate zapaldu bezala "lotsagabetzea"?

Zergatik dela uste duzu?

Espainiako zapalkuntzaren azterketa eta interpretazio lana falta zailakoa. Nik uste dut ez dela nahikoa ulertzen. Espainiako zapalkuntza-sistemak nola eragiten duen ulertu gabe, ezin ditugu azaldu hartzen dituen formak. Maila intelektual eta politikoan dudak obsesioetako bat da ulertzea Espainiako Trantsizioaren kultura delakoak nola makillatu dituen periferiko izendatutako lurraldeen menderatze-dinamikak.

Bestalde, fikzio autonomista honen ondorioz, Espainiako Estatuko nazio gutxituetan auzi eta eztabaida sozial, kultural eta politikoak estatu propioaren jabe balira bezala burutzen dira... baina, estatu izan gabe, jakina. Esate baterako, hizkuntza-politikei dagokionez, estatu batean ingelesari zenbat ordu eman ala ez, eztabaidagarria izan daiteke; baina gure kasuan, ingelesari ordu asko ematea gure hizkuntzari orduak kentzea izan liteke, eta hizkuntza-ordezkapenerako urratsak ematea. Ildo berean, Kataluniako 'eskola publikoa-eskola itundua' eztabaida ezin da herrialde normal batean izan litekeen modu berean izan, kasu askotan eskola itundua katalanismoaren gotorlekua izan baita. Horrekin ez dut esan nahi ereduak eskola itundua izan behar duenik, segregazioa eta gainjartze ekonomikorako arazo nabarmenak baititu. Katalunian eztabaida konplexuagoa dela eta ñabardura gehiago dituela esan nahi dut.

Hitz batean, gutxituriko herri gisa, eta estatua kontra izanda, diskurtsoak falta zaizkigu globalizazioaren oldarraldi handiei aurre egiteko. ●

Katalanezko literatura

► Literatura-kritika egitea da, hein batean, zure lana.

Literatura-kritiketan ere saiatzen zara elkarrizketan azaldu dizkiguzun ideiak implementatzen. Zergatik uste duzu dela garrantzitsua katalanez egiten den literatura-kritika?

Kritikak egiteko modu asko daude: idatzizko kritika tradizionala dago, komunikabide akademikoetan edo kazetaritzakoetan; gero, irratiko kritika dago, kultura-kazetaritzatik hurbilago dagoena, eta, gero, kritika sarietan eta sarietako epaimahaietan instituzionalizatuta dagoena. Hori ere kritika egiteko modu bat da; izan ere, kritikaren zentzua, azkenean, literatura-produkzioaren balioa ordenatzea eta balioestea da. Akademiak literatura-kritika ere egiten du, autore batzuk eta ez beste batzuk ikastea erabakitzen duenean. Hori guztia ezinbesteko lana da edozein kulturatan, baina gurean, are gehiago, kultura katalanean, liburugintzaren sektoreak presentzia erabatekoa duelako sektore kulturean; oso gizarte literaturizatua gara.

Gure kultura-efemeride handia Sant Jordi eguna da; baina, horrez gain, kultura oso indartsua gara argitalpeni dagokionez. Ekoizpen handiko argitaletxeak zein hainbat argitaletxe independente barnebiltzen dituen ekosistema daukagu. Kataluniako argitaletxeen munduak boom bat izan zuen 2012tik aurrera; Idazketa Eskolek garapen handia izan zuten, argitaletxe independente asko ireki ziren, literatura-sarien leherketa ere egon zen... Horren guztia erlde txarra: irakurleak falta zaizkigu.

► Zer esan nahi duzu?

Katalunian, literaturak, askotan, estatu-egituren dimentsioa hartzen duela, Generalitate autonomikoaren beraren egiturak txiki uzten dituen, eta hori izugarria da. Kultura gutxitu guztiek ez dute gaitasun hori. Horretaz 2007an hasi ginen konturatzeko, Frankfurtetako azokako kultur gonbidatua Katalunia izan zenean. Eta azken urteetan, adibidez, Irene

Solàren arrakastarekin, edo Eva Baltasar Booker saria irabazteko hautagia izatearekin... Hori guztia lehen mailako kultura literarioaren ibilbidearen adierazle da.

Hala ere, nik, dena termino politikoetan irakurtzeko joera dudanez, uste dut honek irakurketa bikoitza eskatzen duela: alde batetik, irudi horiek kanpora begira duten garrantziari buruzkoa, katalanitatearen proiektioari dagokionez, eta, beste aldetik, barne-irakurketa bat. Niretzat, oso nabarmena da argitartzearen sektorea prozesu independentistatik eta Kataluniako gatazkatik bereizteko erakusten ari den gogoia.

Esate baterako, aurten Anagramaren katalanezko saria irabazi duen eleberriaren %15 baino gehiago gaztelaniaz dago idatzita. Bada, hori testuan ez bada zalantzan jartzen, ez bada modu gatazkatuan ordezkatzen, niri behintzat, arazotsua iruditzen zait, eta eztabaidatu egin behar dela uste dut. Kezkatu egiten nau horrelako testuak errealtatatzat saltzeak, hau da, irudikapen ez-ideologiko bat balitz bezala aurkezteak. Ideologikoak dira, elebitasun banalaren logikak erreproduzitzen dituen ideologia dute atzetik. Azkenaldian, berez katalanez idatzitako testuan gazteleraren presentzia naturalizatzeko joera handitzen ari da, baina ez bakarrik literaturan, baita zineman eta kalean ere. Eta hori hizkuntza ordezkatzeko dinamika bat martxan dagoelako gertatzen da.

► Hor beste erpin batzuk ere badira, agian. Adibidez, katalanez eta gaztelaniaz liburu bera uste berean ateratzeaz zer pentsatzen duzu? Ez ditu katalanez ateratako liburuaren aukerak pixkaren bat gutxitzen?

Bai, erabat. Literatura-itzulpena bi hizkuntzatan ateratzea ere elebitasun banala da. Bistakoa delako hemen ez direla bi merkatu elkarrekin bizi. Hemen literatura-produkzioaren monopolioa lortzeko borrokatzen diren bi merkatu daude, eta, jakina, Kataluniako literatura-hizkuntza ezin da gaztelaniarekin lehiatu.

BASO JANGARRIA MANTENTZEKO GIDA



IÑIGO ARRUABARRENA

Baso jangarria bizi beharreko basoa da, elkarrizketa bat sortuz, hartu-eman bat. Elkarrizketa horretan, ekintza zehatz batzuk burutzen dira eta basoaren erantzuna jasotzen da bueltan.

Baso bat sortzea naturan ematen diren elkarreraginak errepikatzean datza, denboran ekosistemaren permanentzia eta independentzia bilatzeko asmotan. Aurrekoa buruan izanda, interakzioak egiteko espazio eta denbora diseinatu behar ditugu, energia minimo bat igorrita erantzun esanguratsu bat ahalbidetzeko. Hona hemen ekintza horiek burutzeko gida labur bat:

– **Diseinua:** Garrantzitsua da hausnarketa prozesu bat egitea, behin landaketak eginda, ezingo direlako zuhaitzak mugitu. Atal honetan kontutan hartu beharrekoak: uraren mugimendua, sarbideak, eraikuntzak, animalien erabile-ra, ezagutza, dirua, denbora...

– **Landaketa:** Diseinuaren arabera landaketak egin. Ez dago zertan denak urte berean egin, komeni da prozesua presa barik hartzea. Landaketa garai ona otsail ingurua izan liteke; zitriko zein ahukateondoentzako, udaberria.

– **Neguko inausketa:** Historikoki inausketak neguan egin izan dira gu-rean. Hala ere, esperientziak dio negua ez dela momenturik egokiena zuhaitza bortizki inauszteko. Neguko inausketan punta nagusiak atximurkatzen dira, adar gaixo, makal edo animaliek erasotakoak mozteko, eta ipurditik jaiotzen direnak akabatzeke.

– **Udako inausketa berdea:** Zuhaitzaren egitura eratzten duen inausketa nagusia egiten da berdetan. Garai egokia hostoa guztiz osatzen duenean iza-



ten da, ekain inguruan, zuhaitzak zauria ixteko gaitasun handiagoa duenean.

– **Belarra moztea:** Sega-makinarekin egin beharreko lana da, moztu ondoren, belarra zuhaitzen ipurdiaren inguruetan batu ahal izateko. Honek, zuhaitz inguruko lurra babestuko du, eta ura hobeto gordeko. Belarraren kontrola animaliekin egiten bada, interesgarria da André Voisinekin azaldutako txandakako larretzea ondo planifikatzea eta diseinuan kontuan hartzea.

– **Ureztatzea:** Ezinbestekoa da zuhaitzaren lehen urteetan lurra umel mantentzea. Urtearen arabera ur gehiago edo gutxiago behar izango du, eta urte batzuetan ez du ureztatzerik beharko.

– **"Moztu eta bota":** Permakulturan hedatutako praktika da hau. Helburuak biomasa sortzea eta lurra ongarritzea eta egituratzea dira. Edozein espezie erabili daiteke honetarako, adibidez, akazia, paulonia edo eukaliptoia. Berragertze ona duten zuhaitzak dira erabi-

lienak, behin landatuta, urtetan behin eta berriz moztu ahal izango direnak.

– **Ustekabeak:** Prozesu honetan guztian, badaude planifikatu ezin diren hainbat gertaera, kontuan hartu behar ditugunak. Eratze prozesuan animalia basatiak sartu ahal dira jokoan, adibidez, zuhaitzak atera edota azala janez. Horiek saihesteko erabili daitezke babesak, plastiko edo metalezkoak.

Gaur egungo klima aldaketaren testuinguruan desastre ugari gertatu daitezke. Horien kontra ez dago zeregin handirik, baina suertatzen badira, prest egon beharko gara basoa lagundu eta kalteak murrizteko.

Gida honek baso jangarri bat mantentzeko ekintzak laburbiltzen ditu, gure energia eta indarra planifikatu ahal izateko. Lan handia ematen badu ere, garrantzitsuena prozesua bititza da, egunen batean fruituak gozatu ahal izateko. Hastea besterik ez da behar... Ekin! ●

A ZE FAUNA!

BASOTIK FARMAZIARA



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Luzea, fina eta iluna da eskulapioren sugea. Arre-beltz kolorekoa izan ohi da, orban txiki zurixkak ditu gorputzaren aldeetara, eta hargatik, agian, pertsona batzuen begietara beldurgarri itxura hartzen du. Buru fina du, eta lepoaldean horizta edo krema kolorea, bereizgarri gisa. Bere luzetasun eta iluntasun horretan, ordea, eskulapioren sugeak arriskutsutik gutxi du. Izan ere, pozoirik ez du, sugedorriak ez bezala.

Pozoirik ez, eta leku askotan fama ona! Hala iritsi da eskulapioren sugea mundu osoko farmazietara. Izan ere, botiken ikur ezagunean agertzen den sugea da. Greziarrek eman zioten izen ona, Asklepio medikuari gaixo bat sendatzen lagundu ziolakoan, eta horrela iritsi zen ikur ezagunaren parte izatera. Euskal Herriko farmazietan ez ezik, ordea, eskulapioren sugea bertako basoetan ere aurki dezakegu. Ez ikur moduan, baizik eta hezur-haragizko narrasti. Izan ere, suge honek basoak ditu gustuko batez

ere. Arbolen arteko argi-itzaletan ibiltzen da, eguzkia sartzen den guneeetan gorputza berotuz eta landaretza eta harrir arteetan ezkutatu.

Saguak, arratoiak, eta orokorrean, ugaztun txikiak jaten ditu, baina hegazti habia bila ere ibiltzen da. Hargatik, eskalatzaile finaren fama ere badu. Landaretzan eta arboletan gora ikusi izan da hainbatetan, txiten atzetik: horiek mokadu ona izango ditu, halako tamaina handiko sugeak jatena ere behar duelako gorputza mantentzeko.

Basoan ez ezik, zelai eta horma zaharren inguruan ere topa daiteke maiz. Beraz, esan daiteke hainbat habitatetan ondo moldatzen den espeziea dela. Bere kontserbazio egoera zein den jakitea zaila den arren, badirudi nahiko ugaria dela Euskal Herri atlantikoan. Urtero-urtero hainbat aleren aipuak izan ohi dira, bai mendizaleen behaketei esker, bai, zorritzarrez, errepidean harrapatuak izaten direlako. Izan ere, maiatza inguruan,

ESKULAPIOREN SUGEA

Zamenis longissimus

TALDEA: Ornoduna/Narrastia.

NEURRIA: 150 cm gehienez.

NON BIZI DA? Basoan eta belardi inguruetan.

ZER JATEN DU? Ugaztun eta hegazti txikiak.

MAREA GORRIEN SORTZAILE DA: Europa mailan babestua.

suge honen ugal garaiarekin batera, bere aktibitate handiena hasten da, eta hor izaten dira behaketa gehientsuenak. Ikerketa gehiago beharko litzateke eskulapioren sugea hobeto ezagutzeko. Are gehiago, kontuan izanda, Europa mailan babestua dagoen espeziea dela.

Helduen eta gazteen artean aldea nabarmena izan ohi da eta horrek nahas-dura sortzen du pertsona batzuen artean. Eskulapioren suge gaztea heldua baino argixeagoa izaten da, hori puntu nabarmenagoekin, batez ere lepoaren atzealdean, eta horrek, zenbaitetan, suge gorbatadun gaztearekin nahastea ekartzen du, aditua ez denaren begietara.

Kontuak kontu, eskulapioren sugea, gaztea zein heldua, ezagutzen duten battersitarrek gustura asko utzi izan dute hura bizirik baratze inguruetan. Izan ere, zer hobeagorik inguruko ugaztun txikiak jango dizkizun zaindari eder bat edukitzea baino?

Beste behin ere, ezagutzan dago gako. Sugeen dibulgazioan eta horien identifikazioan ahaleginak egin beharko lirake, bai hankarik gabeko narrasti hauen kontserbazioari begira, bai biodibertsitatearen onerako ere. Ezagutzen hasten garenean hasiko baikara horiek errespetatzen, eta noski, suge bat ikus-teak sortzen duen momentuko zirrarez gozatzen. ●



INDI GAZTAINONDOAREN GERRATEAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuloan sartuta egotea ez duk txarrena –esan zion Manuk–, txarrena duk ez jakitea noiz aterako haizen, edo inoiz aterako haizen ere. Lander Garroren *Gerra Txikia* nobelan, non gerra bateko iheslarien gorabeherak azaltzen dituen, pertsonaien artean, Anna Frank dakarte gogora: “Batzuetan Anna Frank sindromea ahazten zaidak, badakik, betiko hemen eta horrela gertzeko izua. Anna Franken kasua kontatu zion gero, Bigarren Mundu Gerran naziengandik ihesi ibilitako neskatila judutarra izan zela, etxe-zulo baten gordeta igaro zituela bi urte, han eguneroko bat idatzi zuela, eta herbeheretar batek salatu ondoren hil zela Auschwitzeko kontzentrazio gunean”. Sasian ezkutuan iheslaria eta baita Anna ere. Euskalduna eta judua biak izu batean.

Annak, ezkutalekuan izan zen artean, eguneroko bat idatzi zuen, gerora sonatua egin zena, oso, hura Bigarren Mundu Gerrako juduen aurkako genozidioan holokaustoko kontzentrazio esparru batean erail ondoren argitaratutakoan.

Eguneroko horretako protagonistetako bat etxe zulo haren leiho-txotik ikus zitekeen zuhaitza da, indi gaztainondoa (*Aesculus hippocastanum*), Amsterdamgo erdialdean bizi zena. Gero, zuen sona istapetik pasa eta behin baino gehiagotan ZAKUR (Zuhaitzen Aurkari Kriminalen Urgazleak) eraile zelulakoak lurreratzen saiatu ziren; baina auzoko



Anna Franken egunerokoko protagonistetako bat: bere etxeko leiho-txotik ikusten zuen zuhaitza, indi gaztainondoa. 2006an ateratako argazkia. 2010ean haizeteak eraitsi zuen.

jende naturala elkartu, eta salbatzea lortu zuten. Gerrateetako erailtzaileekin borrokan nekatur, gaixorik, 2010eko abuztuaren 23an, haizete gogor batek eraitsi zuen; 160 bat urte zuen. Historiarako gertatuko den zuhaitza, gudari, genozidioari, holokaustoari eta neskatxa baten bizitzeko grinari lotutako zuhaitza.

Zuhaitz haren gaztainak jaso eta makina bat kume txir-pi landatu da mundu osoan; betiere judutarren genozidioa edota maila horretako ekintzak gogorarazteko eta gaitzesteko eraiki izan diren museo edota antzekoetan. Indi gaztainondoa oparo ugaltzen ari da, bere gaztainak kontinente guztietan helduz. Ondorengo zuhaitzak Fukuyama, New York, Bradfor, Indianapolis eta Europako herri ugartako ikastetxeetan bizi dira, baita gerra hartako Frantziako erresistentziaren hiriburua izan zen Lyongo 3. barrutiko udaletxearen parean eta Parisko Anne Frank lorategian ere. Anna Franken izena daraman kale, plaza, baratze eta abar ugari dago. Donostiako Aieteko Parkean ere badago zuhaitz haren kimu bat, bere oroigarri, gerra eta krimen ugariren bake goseak ase nahi dituen tokian.

Edonon dauz txakurrak ha-ginak zabalik. Etxe guztietan laratzak beltzak.

Genozidioak eta holokaustoa ez ahazteko eta oroimenari zentzu pedagogiko bat eman aldeko oroitoki horietan,

olibondoa (*Olea europaea*) edo zein zuhaitz jarri asmo dute Palestinan etxean ezkutatuta bere nerabe egunerokoa idazten ari diren bitartean juduek erailtzen dituzten انا، Anna izeneko neskatxen oroigarri? Donostian? Erresistentziaren Lyon? Noizko Euskal Herrian lehenengo Palestina Parkea? ●

OKITURRI

LEKALEAK, OLIOA, OILASKOAK ETA IRINA
ERALDATZEKO GUNEA ARABAKO LAUTADAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Bizi-bizi dago Arabako Lautada. Ekoizle txikiek haien produktuak eraldatzeko hainbat egitasmo jarri dituzte martxan; azkena, Okiturri izenekoa. Lekaleak garbitzeko gunea, oilasko hiltegi txikia, koltza eta ekilore olio eraldatzeko gunea eta irina egiteko errota txiki bat dituzte eraldaketa gune kolektiboan. Donemiliagako Udalaren pabilioian elkartu dira hainbat jardueratako ekoizleak, eta laguntzaile eta bidelagun fin izan dute Lautadako Landa Garapen Elkarte. Arantza Arrien Goitiandia teknikariak azpimarratu duenez, ekoizleak dira beti proiektuaren bul-tzatzaileak: “Guk lagundu egiten ditugu”.

ELIKAGAIEN ERALDAKETA, AUTONOMIARAKO GAKO

“Bost urterako plangintza egiten du Landa Garapenerako Elkarteak, eta bere garaian inkesta egin genuen eskualdeko ekoizle beharrak identifikatzeko”, azaldu du Arrienen. Lanketa horretan, ekoizleek haien produktuak eraldatzeko guneen beharra adierazi zuten, eta azpiegitura horiek martxan jarri ahal izateko haien inplikazioa zein zen argitu. “Udalei ere pasatu genien galdetegia: eraldaketa proiektuak martxan jartzeko lokalik eta kudeaketan inplikatzen prestutasunik ba ote zuten



galdetu genien”. Jasotako erantzunen artean, eraldaketa gunea jartzeko toki egokiena Donemiliagako udalaren pabilioia iruditu zitzaion, eta hitzarmen bidez gunearen lagapena lortu eta gero, martxan jarri ziren.

2019ko urtarrilean abiatu zuten gune lehen proiektua, lekaleena. “Bost lekale ekoizle elkartu ziren eta garbitzeko makina erosi zuten, Aldundiko laguntzari esker. Makina hori ez da beste munduko ezer, baina garestia da ekoizle bakar batek erosteko”, dio teknikariak. Lekale ekoizleek Lautadako Lekaleak izeneko elkarte sortu zuten gunea martxan jartzeko, eta kudeaketa ere ekoizleek eta udalaren esku dago egun.

BAKARRIK EZIN, ELKARLANEAN BAI

Ekiolio proiektuko kideak batu ziren iaz gunera. Koltza eta ekilorea zuku-tzeko makina eskuratu zuten olio eraldatzeko, eta gainera, prozesuan sortzen diren soberakin solidoak aprobetxatzeko, inguruko abeltzainekin tratua dute. Aldi berean, eskualdeko oilasko ekoizleak elkartu ziren hiltegi txiki baten hutsuneari erantzuteko asmoz. Laguntza bati esker eta haien poltsikotik ere zati bat jarrita, aurrean jarri da martxan oilasko hiltegi txikia.

“Enpresa italiar bati modulu txiki bat erosi zioten, eta Lautadan Bertan izeneko kooperatiba sortu dute kudeaketarako”.

Azkenik, irinen egitasmoa gehitu da proiektura. Garapen elkarte irinen inguruko kooperazio proiektu batean ari zen, eta errota txiki bat jarri dute gunean. Momentuz, ekoizle eta okinek irinak testatzeko erabil dezaket, proba moduan. Aurrera begira, esku-artearen egitasmo kolektibo gehiago ere badituztela aurreratu du Arrienen: “Norberak bere makineria edukitzea askotan ez da bideragarria, eta errelebora begira ere, gauzak erraztu egiten dira modu honetan. Eta, gainera, diru publikoa hobeki aprobetxatuta”. ●



“Eurohostoak bermatzen du produktu batek zigilu ekologikoa lortzeko beharrezko kontrol guztiak pasatu dituela

—
MIKEL ALCASENA
CPAEN/NNPEKeko auditorea
BURLATA

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!










cpaen.org
navarraecologica.org

TEKNOLOGIA BURUJABETZA



ZOKETA

ARGIAko kideen artean Errigorako hiru saski eta bi otordu zozketatu ditugu. Hauek dira irabazleak:

ARGIAko kideen artean Errigorako hiru saski eta bi otordu zozketatu ditugu. Hauek dira irabazleak:

SASKIAK

- M. Isabel Etxebarria Garitazelaia
- Iker Manterola Matxain
- Nerea Izurieta Torre

UPATEGIAN BISITA ETA BAZKARIA

- Erreterriako Udala
- Nekane Zubizarreta Arenaza

Teknologia burujabetzaz idazten dena, esku-eskura

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hodeia ez da existitzen. Eta ez naiz Kinton-ez ari, hori benetakoa da, badakit. Iametzaren teknologia burujabetzari buruzko gunearen izena da: 'Hodeia ez da existitzen'. Podcast saioak, albisteak, sortuak eta sarean arrantzatutakoak... denak jasotzen aha-legintzen den biltegia. Dagoeneko mar-txan dago eta hodeiaezdaexistitzen.eus estekan begiratu dezakezue. Euskaraz, behintzat, ez da gaur arte antzeko beste gunerik sortu eta hutsune hori betetzera heldu da, teknologia burujabetzaren inguruan interesa duenak erreferentziatzeko gune bat izan dezan pentsatua.

Aspaldian dugu txipa horretan ARGIAk eta Iametzak. 2020an sortu zen gune honen lehen aurrekaria: Sandra Perez, Nerea Oñate eta Kristina Fernandezek aurkezten duten *Hodeia ez*

da existitzen teknologia burujabetzari buruzko podcasta. Duela lau urtetik, gai honen inguruko elkarriketa, albiste edo liburu zein dokumentalei buruzko iruzkinak aditu daitezke bertan. Geroztik, podcastean ahoz ematen zituen albisteak idazten hasi zen Asier Iturralde 2022an, astean bat; eta hauek ARGIAren Plazako Iametzaren leihoan ere zintzilikatzen dira, argia.eus-eko azalera ekarri eta sareetan zabaltzeko asmotan.


Orain, hirugarren kolpea. Jada lanen bilduma bat osatuta, sarean topatzen diren eta irakurlearentzat interesgarriak iruditzen zaizkigun albisteak behategian partekatuko dituzte. Hala, jatorrizko izenburua mantendu, azpian euskarara itzuli –euskarazko albisteak ez den kasuetan–, hedabidearen izena aipatu, albistera lotura zintzilikatu eta

albisteak testuinguruan jartzen duen sarerretxoarekin zabaltzen da behategian.

“Gaiari buruz informatuta egon nahi duenari irakurgaiak aurkitzea erraztu nahi diogu”, azaldu digu Iturraldek. “Ez dugu katastrofismoan erori nahi, albiste onak ere zabaltzen ditugu; bertako esperientziak, aukerak...”, azpimarratu digu segidan. “Hack.in#badakigu informatika elkarte askeak kudeatutako *Pribatutasunaren behatokia* edo ARGIAren *Zero Zabor* kanala izan ditugu eredu, bi kasuetan ere gai zehatzen bueltan zabaltzen zenaren biltegi eta erreferentziatzeko gune direlako”.

Interesa duen orok eskuragarri du, esan bezala, ‘Hodeia ez da existitzen’ guneko behategi berria, baita t.me/hodeiaezdaexistitzen Telegram kanala ere. ●

Artea suntsitzeko arrazoiak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1914ko martxoaren 10a. Mary Raleigh Rochardson (1889-1961) sufragista eta WSPUko kidea National Galleryra sartu zen, soinekoan laban bat gordeta zuela. Diego Velazquezen *Ispiluko venus* ezagunaren parera iritsi zenean, mihisea zazpi aldiz sastakatu zuen, guardiek geldiarazi zuten arte.

Ez zen artelan baten ez lehen eta ez azken eraso izan. Halako kasuetan prentsak bandalismoaz hitz egin ohi du, baina ez da hitz zuzena. Bandalismoa ondarea inongo "arrazoirik" gabe suntsitzea da; ekintza horien atzean arrazoi erlijioso, politiko, sozial... bat dagoenean, aldiz, ikonoklasia esaten zaio.

Kontzeptu hori nagusiki erlijioari lotuta egon da historikoki. Antzinako Egipton, Akenaton faraoiak Amon jainkoaren irudiak suntsitu arazi zituen Aton jainkoaren gurtza ezartzeko. Halaber, Akenatonen agintaldia amaituta, ordena zaharra berrezartzeko, faraoi ohiak utzitako ondarea suntsitzen ahalegindu ziren; baina ez zuten guztiz lortu, hain zuzen, bere garaiko artelan batzuek iraun zutelako, esaterako, Akenatonen emazte Nefertitiren bustoa.

Ziurrenik, historiako ikonoklasia erlijioso ezagunena Bizantzioko VII. mendeko irudi kristauen aurkako erasoaldia izan zen, baina gerora ere kristauek, katoliko nahiz protestanteek, irudi erlijiosoak suntsitzeko ekintzak bultzatuko zituzten.

Arrazoi politikoek ere bultzatu dute ikonoklasia. Frantzian, 1789ko iraultzaren ondoren, Antzinako Erregimenaren sinboloak desagerrarazi nahian, eliza



Velazquezen *Ispiluko venus*, sufragistek sastakatu.

gotikoak 24 ordutan suntsitzeko makina eraikitzea pentsatu zuten -azkenean gauzatu ez zen arren-. Eta oraindik ere buruzagi politikoek estatuak suntsitu ohi dira han eta hemen.

Baina duela 110 urte sufragistek egingoak aldaketa ekarri zuen ekintza ikonoklastetan. Ordura arte, artelanak berak -eta horiek irudikatzen zutena- suntsitzea zen helburua. Eta garaiko prentsak ere hala interpretatu zuen koadroaren aurkako eraso: venus biluzia emakumeak objektutzat jotzea sinbolizatzen omen zuen eta horregatik suntsitu nahi izan zuten. Richardsonek berak ukatu zuen hori; koadroa ez zen jomuga, bitartekoa baizik. Sufragisten kausak arreta izan zezan sastakatu zuen venusa.

Azken urteetako artelan ezagunen

aurkako erasoak ere atentzioa bereganatzea izan dute helburu. 2022ko urrian Londresko National Galleryn bertan ekintzaileek zopa bota zioten Van Gogh-en *Eguzkiloreak* lanari, inflazioaren aurka protesta egiteko; koadroari ez zion kalterik eragin. Eta berriki ekintzaile ekologistek Da Vinciren *Mona Lisa*-ren aurkako enegarren ekintza egin dute, horri ere zopa botata; ekintzaileek ederki zekiten, babes-egitura medio, zopak ez zuela koadroa ukitu ere egingo.

Eta, hala ere, komunikabide askok bandalimotozat jotzen dute. Ahaztu edo ezkututzen dute, ordea, artelanen espoliatzeak, merkatu beltzak eta espekulazioak ondare artistikoari askoz kalte handiagoa eragiten diotela, ekintza jakin horiek baino. ●

Lehenengo taberna

Mesopotamiako Lagash hiriaren aztarnen artean, egungo Iraken, taberna baten egitura ikertu du estatubatuar eta italiar ikerlari talde batek. 2019tik jardun dute proiektuan, duela 4.900 urteko zazpi gelako egitura aztertzen: tabernak labea zeukan, *zeer* izeneko hozkailu modukoa, sukaldia, biltegiratzeko ontziak, jangela irekia... Lipidoen azterketaren

bidez, ontzietako janari arrastoak identifikatzen ari dira orain, baina dagoneko ondorioztatu dute orain arte aurkitutako tabernarik zaharrena ez zela eliteentzako jatetxea; Holly Pittman indusketa zuzendariaren hitzetan: "McDonald's modukoa zen, zerbitzu azkarra emateko aurrez prestatutako janaria zeukana". ●



LAGASH PROIEKTU ARKEOLOGIKOA



Zuen bizitzan lehen aldiz, herrian ikusiko duzue GIBa

Xabin Fernandez eta Intza Alkain
Kanpora sartzen antzezlan

2013an, medikuaren telefono deia jaso zuen Xabin Fernandezek (Legorreta, Gipuzkoa, 1985). Diagnostiko garbia eman zioten: GIBa. "Seropositiboa zara". Bizitzak 360 graduko buelta eman zion orduan. Mamuak agertu zitzaizkion: beldurra, amorrua eta lotsa, besteak beste. Hala ere, hasieratik buruan izan du esaldi hau: "Gertatzen dena gertatzen dela, honekin zerbait egingo dut noizbait". Eta hitza bete: interpretaziorako bidea hartu du. Zergatik ez egin antzerki obra bat?

 MATTIN AZPIROZ PAGOLA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Birusa diagnostikatu eta hamar urtera, oholtzara igo da ibilbide pertsonala jendaurrean kontatzera. Intza Alkain (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1995) aktorea izan du bidelagun, birus "famatuaren" papera hartuta. Bidaia horretan, Aitziber Garmendia eta Sara Cozarren zuzendaritzapean aritu dira Fernandez eta Alkain. Umorea baliatu dute Euskal Herriko antzokietara bertaratzen direnei GIBaren errealitatea parean jartzeko. Jendaurrean biluzten ari da Fernandez, horrek suposatzen duen guztiarekin.

Zaila izan da fikziozko pertsonaia baten barne-munduan beharrian, norberarenean sartzea?

Xabin Fernandez: Beldur handia nion hasieran, baina mahaiaren bueltan lantalde osoa elkartu ginenean, Aitziberrek [Garmendia] eman zidan lehen aholkue-tako bat izan zen pertsonaiari mugak jar-tzea, erabakitzea noraino izango nintzen ni eta nondik aurrera sortuko genuen pertsonaia. Esan zidan beharrezkoa nuela distantzia apur bat hartzea, ezin nuela %100 niretik eman, pertsonaiatik ere izan behar zuela. Aholku horri tiraka, ez zen horren zaila izan.

Zuk, Intza, birusa gorpuzten duzu. Nola iritsi zitzaizun proiektua? Bazenuen istorioaren berri? Intza Alkain: Ekoiztetxetik deitu eta

proiektua eta istorioa azaldu zizkidate-nean, beldur pixka bat sentitu nuen. Ez nuen Xabin ezagutzen, eta seropositibo izatearen bere esperientzian oinarrituta-ko istorioa izanda, are gehiago. Dena den, lantaldean zein egongo ginen esan zidate-nean, ez nuen bi aldiz pentsatu. Erronka interesgarria iruditu zitzaidan.

Oholtzakide izango duzunaren istorio erreala antzetzeta, nola kudeatu duzu?

I.A.: Gai oso delikatua iruditu zitzaidan hasieran, baina lehen unetik tabu izatea-ri utzi zion. Askok hitz egin genuen gure artean, eta bakoitzak bere esperientziak eta bizipenak kontatu zituen. Horrek oso arina egin du dena; barre asko egin dugu. Eta Xabinek esan duen bezala, distantzia hartzea garrantzitsua da. Umorea oso presente egon da sorkuntza-prozesuan, eta horrela islatzen dugu antzezlanean.

Xabin, 2013an jakin zenuen seropositiboa zinela. Esan izan duzu argi zeneukala zerbait egiten amaituko zenuela. Zerk eraman zaitu antzerkira?

X.F.: Bizitzak apur bat horretara eraman nau. Medikuek esan zidaten poliki eta pixkanaka joateko, lasai hartzeko, eta ha-serre puntu bat eragin zidan horrek. Uste dut erreakzio horrek eraman ninduela gaiari buruz hitz egitera, Euskal Herrian ez baita GIBaz naturaltasunez hitz egiten.

Baina azkenean, epe laburrean, ez nintzen gai izan: kaiola zikin batean sartu nintzen denbora luzean.

Gerora, dokumental forma ematea pentsatu nuen, baina pandemiaren ondoren izena eman nuen Donostiako Arte Eszenikoen tailerrean, ilusio berri baten bila-edo. Antzerkiak beti erakarri izan nau. Eta lehen unetik oso gustura eta eroso sentitu naiz. Hasieran amets eta apustu efimero bat zen, ez nuen pentsatzen hartu duen forma hartuko zuenik.

Nola eragiten du pertsona baten bizitzan seropositiboa dela jakiteak?

X.F.: Segundo batean bizitza aldatu zitzaidan. Ez nuen espero, eta telefono dei baten bitartez jaso nuen albistea. Orduan etxean nengoan, bakarrik, eta ez nintzen gai izan gehiegi galdetzeko. Deia moztu eta negarrez hasi nintzen. Asko beldurtu nintzen informazio falta handia nuelako, oso ezezaguna baitzen niretzat. Lehen egunetan oso gaizki pasatu nuen, eta egoerari buelta emateko pentsatu nuen lagungarria izango zela inguruari kontatzea, etxekoekin eta lagunekin hitz egitea. Gero, ordea, ez nuen ausardia hori topatu, batzuekin egin nuen arren. Gogoratzen dut lehen egunetan ohera sartzen nintzeanean nire buruari esaten niola: "Hau bertirako da, honek ez du atzera bueltarik". Dena oso beltz ikusten nuen une hartan.

Gauzak aldatu al dira gaixotasunarekiko aurreiritzietan? Edo uste duzue estigma izaten jarraitzen duela seropositibo izateak?

I.A.: Oraindik ere bai, jarraitzen du izaten. Nik, adibidez, gauza asko ikasi ditut obrari esker, baina proiektuan sartu baino lehen oso ezezaguna zitzaidan GIBa; kontzeptu asko nahasten nituen. Ez dakit nire kasua edo orokorra den.

X.F.: Esperientzia propiotik iruditzen zait gauzak ez direla aldatu urteotan, hain justu, orain ere, ez delako horren inguruan hitz egiten. Egoera berean mantendu da, ez dakit kasuek gora edo behera egin duten, baina infekzio tasak nahiko paretsu jarraitzen du. Errealitate hori hemen dago, hemen egon da urteotan, baina ez da horri buruz hitz egiten, eta jende askok uste du ez dela existitzen. Jende askok esan dit ez dakiela zer den, eta horregatik erruduntasun sentazioa ere izan duela.

“”

Goazen GIBa mahai gainean jartzera eta orain zein puntutan gauden erakustera

Xabin Fernandez

Agian joera dugu pentsatzeko atzerriko kontuak direla GIBa eta beste mila errealitate...

I.A.: Freddie Mercury seropositiboa zela, mundu guztiak daki. Eta kasurik ezagunenak oso gordinak izan dira beti, drogekin eta sexuarekin loturikoak. Gaur egun Euskal Herrian birusa izatea zer den erakusteak mamu hori kentzen lagun dezake, eta zuri ere gerta dakizukeen zerbait bihurtzen da.

X.F.: Eta GIBa hor dago, baina ez du zirikurik orain dela hamarkada batzuk zenarekin. Beraz, goazen informazioa mahai gainean jartzera eta orain zein puntutan gauden erakustera.

Legorretakoa izanda -1.500 biztanlezailagoa da. Herri batek bere gauza onak ditu, baina txarrak ere bai, eta presio hori hor dago. Herri txiki bat presio-heltze bat bezalakoa da. Beti pentsatzen dut agian Donostian jaio izan banintz beste modu batera eramango nukeela. Horregatik, nire ilusioa da antzezlanaren herri txikietara eramatea eta birusa parean jartzea. Obran honela esaten dugu: "Zuen bizitzan lehen aldiz, zuen herrian ikusiko duzue birusa".





Zer nolako harrera jasotzen ari zarete?

X.F.: Askok badakite zeren inguruan hitz egingo dugun, baina ez dakite zer espero; ez dakite barre ala negar egingo duten. Askok aitortzen dute apur bat "tentsioz" etortzen direla, baina gehiengo askok ere lasaiago irteten da gero. Batzuek negar egiten dute, baina barre gehiago entzuten da.

Umoreak zeresan handia du horretan.

X.F.: Banekien ezagun asko etorriko zirela ikustera, eta ez nuen nahi sentsazio ilun batekin ateratzea. Orain askoz hobeto nago, beste puntu batean, eta hori islatu nahi nuen. Umorea distantzia hartzeko eta beste ikuspuntu bat emateko baliagarria da, eta hori izan da nire apustua hasieratik. Lanean hasi ginenean, eta Intza, Aitziber eta Sara [Cozar] alboan edukita, garbi ikusi genuen hori zela bidea, eta gainera, gehiago indartu behar genuela. Hasieran umorea zegoen, baina sortze prozesuan asko luzatu da umorearen itzala.

Lortu duzue oreka umorearen eta gaiaren gordintasunaren artean?

I.A.: Baietz uste dut. Jende askok esan izan dit, antzerkian zehar Xabin bere istorioa kontatzen ari den unean enpatia asko sentitzen dutela, oso sartuta daudela, eta, bat-batean, zaplazteko baten gisan, umorearekin irten egiten direla, eta barre egiten dutela ia negarrez ari diren horren inguruan. Distantzia ariketa hori egiten da uneoro. Lantzeko oso kode *guay*-a da.

X.F.: Hasieran bazegoen beldur hori: "Pasatu egingo gara?". Une batzuetan Aitziberrek galdetzen zidan: "Aizu, hau horrela esaten badugu, iruditzen zaizu pasatzea izango dela?". Aurrera egin dugu gauza askotan.

Hilabeteotan, seropositiboa den pertsona ugari etorri da obra ikustera, eta niretzat haien *feedback*-a ere oso garrantzitsua izan da. Publiko orokorrarekin aldatuta, inpaktu handiagoa izan du haiengan. Batzuek esan didate bizitzen ari diren egoeraren arabera agian deseroso sentiarazi ditugula, baina eskertu digute obrari eman diogun tonua, eta pozik ateratzen dira. Hori izan da guretzako onena.

Nola eramaten dira norberaren bizitzako hamar urte oholtzara?

X.F.: Hamar urte hauetan hainbat gauza idatzi dit, eta horiei forma ematea izan da zailena. Une batean erabaki nuen



Egiatik eginda dago kontakizuna, eta horren aurrean identifikatuta sentitzea oso erraza da

Intza Alkain

neuzkan 5.000 paperetatik batzuk aukeratu behar nituela, hamarkada honetako momentu klabe batzuk. Horiek erakusteko ariketa izan da.

Zenbat du fikziotik eta zenbat errealitatetik?

X.F.: Asko du errealitatetik. Ez da bakarrik kontakizuna; erabili ditugun elementu asko dira nire errealitatearen parte. Esaterako, pilula poteak; pilotzen joan naiz hamar urteotan, etxekoek ikus ez zitzaizten. Aitonaren galtzak ere erabiltzen ditut, eta amonaren ahotsa entzuten da tarteka. Alde horretatik, obra hau oso neurea da.

Kaiolan sartzen zarete emanaldian, fisikoki, literalki, eta emozionalki. Giltzapetuta egon den -edo dagoen-jendea askatzeko balio dezake?

I.A.: Egiatik eginda dago kontakizuna, eta horren aurrean identifikatuta sentitzea oso erraza da. Umoreak gaia arintzen laguntzen du.

X.F.: Eta gai bera ez bada ere, kaiolak, azkenean, etxe askotan daude forma ugarritan.

I.A.: Osasun mentala ere mahai gainean jarri dugu, eta prozesuan gu ere identifi-

katuta sentitu gara geure bizitzako arazoekin. Norbaitek bere istorioa kontatzen duenean, agian ondokoak ere kontatu egiten du eta ireki egiten da. Norbait irekitzen denean bestea ireki egiten da.

X.F.: Batzuk ireki dira nirekin. Konturatu naiz ez nintzela seropositibo bakarra Euskal Herrian.

Obran esaten duzue gizartean badaudela gaixotasun batzuk protagonismo handia dutenak, minbizi esaterako, eta horien inguruko kanpainak oso sarri egiten direla. Zergatik uste duzue, agian izango da estigmatik, "isilarazten" dela GIBa?

X.F.: GIBaren bueltan ibili diren bi maizak beti izan dira sexua eta drogak. Dena "zikinkeriarekin" dago lotuta, eta horregatik isilduta daukagu. Minbiziak ere izan du hori, eta bere garaian oso fama txarra izan zuen, baina antzerki obran aipatzen dugun bezala, hori ere aldatu da, zorionez, eta gaur egun kanpaina asko daude. Agian hemendik hamarkada batzuetara GIBarekin ere aldatuko dira gauzak.

Denok omen daramagu maskara bat. Zer ematen du jendaurrean biluzteak? Gehiago ematen du kentzen duena baino?



X.F.: Pisu handia kendu dit. Aurpegia emateak asko laguntzen du egunerokotasunean.

Kendu, nolabait, anonimotasuna kendu dit, pixka bat biolentzia ere izan da zenbaitetan, azkenean eszenariora atara behar duzulako zuri gertatu zaizkizun gauzak lehen pertsona kontatzerara. Eman, lasaitasuna eman dit, eta horrekin geratzen naiz. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA JAIME ALTUNAK, EHU-KO IRAKASLEA ETA IKERLARIAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 8 | | 9 | | 1 | 2 | | |
| 3 | | | 2 | 7 | 6 | 1 | 4 | |
| 4 | | 2 | 8 | 5 | 3 | | 7 | |
| | 7 | | 1 | | | | 6 | |
| 8 | 2 | 6 | 5 | 9 | | 3 | 1 | |
| | | | 2 | | | 5 | 8 | |
| | | 8 | | | | | | |
| 7 | | 1 | 3 | | | 9 | 5 | |
| 2 | 5 | 3 | | 6 | | 1 | 8 | 7 |

ERRAZA


| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | | | | | 4 | | |
| | | 6 | 8 | 9 | 3 | | |
| | | | 1 | 5 | | 2 | |
| 4 | 3 | 5 | | | 6 | | |
| 6 | | | | 8 | 5 | 9 | |
| | | 7 | 9 | | | 3 | 2 |
| | | | | | 8 | | |
| | | | | 5 | 2 | 1 | |
| 4 | | | 1 | | | | |

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Tabako hondakin.
2. Aitzin.
3. Kolore.
4. Sabela.
5. Gizon emaztearekiko.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | Z | T | U | A | K |
| 2 | G | | | | E | I | L | A |
| 3 | A | D | | | | R | U | A |
| 4 | K | U | K | | | | L | A |
| 5 | G | A | T | I | | | | K |
| 6 | E | S | K | R | I | | | |

EBAZPENAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 5 | 3 | 4 | 6 | 9 | 1 | 8 | 7 |
| 7 | 6 | 1 | 3 | 8 | 2 | 4 | 9 | 5 |
| 9 | 4 | 8 | 7 | 1 | 5 | 3 | 6 | 2 |
| 1 | 3 | 4 | 6 | 2 | 7 | 9 | 5 | 8 |
| 8 | 2 | 6 | 5 | 9 | 4 | 7 | 3 | 1 |
| 5 | 7 | 9 | 1 | 3 | 8 | 2 | 4 | 6 |
| 4 | 1 | 2 | 8 | 5 | 3 | 6 | 7 | 9 |
| 3 | 9 | 5 | 2 | 7 | 6 | 8 | 1 | 4 |
| 6 | 8 | 7 | 9 | 4 | 1 | 5 | 2 | 3 |

ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 4 | 8 | 3 | 1 | 2 | 9 | 6 | 7 |
| 7 | 6 | 9 | 4 | 8 | 5 | 2 | 1 | 3 |
| 1 | 3 | 2 | 6 | 7 | 9 | 8 | 4 | 5 |
| 8 | 5 | 7 | 9 | 4 | 6 | 1 | 3 | 2 |
| 6 | 2 | 1 | 7 | 3 | 8 | 5 | 9 | 4 |
| 4 | 9 | 3 | 5 | 2 | 1 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 8 | 4 | 1 | 5 | 3 | 7 | 2 | 6 |
| 2 | 7 | 6 | 8 | 9 | 4 | 3 | 5 | 1 |
| 3 | 1 | 5 | 2 | 6 | 7 | 4 | 8 | 9 |

ZAILA

PUZLEA: "EUSKAREN AUZIA NERABEENA BAINO GEHiago DA HELDUNA, GAZTEEN MEZUA DA: ZUEK ALDAKETA HANDI BAT EGITEN EZ DUZUEN BITARTEAN, GUK EZIN DUGU EGINTZ." **5XS:** 1. HAUTS, 2. AURRE, 3. URDIN, 4. TRIPA, 5. SENAR. **HIZKI BERAK:** 1. ABUZTUAK, 2. GAUBELA, 3. ADABURUA, 4. KUKUBALA, 5. GATIBUAK, 6. ESKRIBAU.



Normaltasunean berririk ez

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE TXALO PRODUKZIOAK

Soldatapeko lana erdigunean dago gure bizitzetan. Orduak eta orduak ari gara besteentzat, behar baino gehiago. Gure bizitzak baldintzatzen dituen arren, onartu egiten dugu. Denbora hori ezin da berreskuratu.

Egunerokoa den egoera bat topatuko du ikusleak agertokian, lanegun bat. Burnizko mastak eta hagak ekoizten dituen enpresako almagazera sartu gaituzte. Arduraduna da protagonista, biltegiak arduratzen den langile bakarra. Datozen bost egunetan, ordea, gazte batek egingo dio konpainia, jubilatzeke eta lekukoa emateko falta zaien denbora da hori. Zein baino zein desberdinagoak diren bi pertsonaia espazio berean kokatu ditu egileak. Pentsamendu eta funtzionamendu nahikoa kontserbadore eta metodikoa duen langile zaharra eta bazterrak nahastera datorren langile berria, legeak eta aginduak gutxi asko inportatzaileak eta energia soberan duena.

Pertsonalitateon bateratzeak umorea eragin du nahitaez ikusleagoan, eta tal-

ka haien artean. Denbora eta espazioa da komunean duten bakarra. Enpresak ezer gutxi ekoizten duenez, bien arteko elkarrizketak dira gertatzen diren gauza bakanak. Ez dago apenas ekintzarik ezta mugimendu handirik ere, baina, egia esanda, ez du gehiago eskatzen. Antzezlan honetan testuak du garrantzia handia, eta isiluneez ere bai. Denborari eta egon beharrari merezi duen lekua eman diote, esklabutza zenbait modutan ematen dela irudikatu eta langile klaseko bizitza guztietan dagoen zama begien aurrean jarrita. Ziur naiz tristura, nostalgia eta angustia sentitu dituela ikusleak gure bizitzak eszenan bezala pasatzen ari direla sentitutakoan. Lanera joatea bazkaltzea bezain normala dela sinesten dugun gizartean, umorearen atzean kritika ulertzea lortu duenak behintzat.

Dena den, sakontasuna falta zaiola esango nuke. David Desole dramaturgo katalanaren obra horrek Hermanos Machado saria jaso zuen 2003. urtean. Haren estiloa umorea eta drama egitea

ALMAZENEAN

KONPAINIA: Txalo Produksioak.

AKTOREAK: Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga.

NOIZ: Otsailaren 2an.

NON: Antzoki Zaharrea (Donostia).

da, eta hau ere genero horietan kokatu du. Era berean, kritikotasuna da gidolariari esleitzen zaion beste ezaugarrietako bat, eta hori jakinik hurbildu nintzen antzokira. Txalok aurkeztutako sinopsiak ere promesa bera egin zidan, “galtzaileen kontzientzia” eta “komedia zorrotz eta garratz honek lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnarketa egiten duela” irakurri nuelako. Aurreiritzi horrek zirrara piztu zidan, baina erdizka bete du agindutakoa. Badu kritikotasunik, nabari da ahalegina eta asmoa, ideia bera abiapuntu kritikoa da, baina ez da barruraino sartzen. Irudipena dut pertsonaien izaeretan kokatu dutela gehienbat istorioa, zentzu humanistikoa nabarmenduta. Garbi dago pertsonaiak ez direla haien kondizioaren jabe, baina publikoak beharko luke eta horretarako ahalegina hankamotz geratu zait. Noraino esplotatu nahi den esplotazioa, hori da kontua. Ez geratu denboraren lapurrei begira, zazpi minutu asko dira. ●



LIBURUA

Duela mende erdiko haurtzaroa



BEGI BAT KOKOTEAN JUAN KRUZ IGERABIDE / ELENA ODRIOZOLA

EDICIONES MODERNAS EL
EMBUDO, 2023

XABIER ETXANIZ ERLE

Umetan, atzera begira egoten nintzen maiz. 'Begia aterako zaik kokotean', mehatxatzen ninduan apaizak, elizan atzera begira ikusten ninduelako". Hitz horiek ematen diote hasiera Igerabideren liburu honi; atzera begira haurtzaroaren kontakizun pertsonal eta hunkigarria da, baina baita soziala eta umoretsua ere.

Oso gutxi dira gure artean autobiografiak, are gutxiago haur eta gazteen-tzako obretan –hau da, nik uste, aurrenekoa edo aurrenetakoa– eta, alde horretatik, liburua, estiloa, gertakariak, narrazioa... klasikoa izanik, berritzailea dugu.

Juan Kruz Igerabide Adunan sortu zen 1956ko martxoan. Eta Joxe Arratibelek 1980ko hamarkadan esaten bazuen gehiago aldatu zela mundua azken

80 urteetan aurreko bi mila urteetan baino, Igerabidek erakusten digu are gehiago aldatu dela Adunan sortu zenetik gaur arte. Izan ere irakurleak 1960 eta 70eko hamarkadetan Gipuzkoako herri txiki batean haurrak nola bizi diren ikusi ahal izango du, nola jolasten zuten, nola bizitzen zuten normaltasunez heriotzaren presentzia, nolako zen eskola eta nolakoak lagunak eta haurren arteko harremanak. Belaunaldi baten kontakizuna, memoria, azaltzen digu Igerabidek obra honetan, baina baita berea ere, Juan Kruzena, amaren galera, aitaren bizimodu gogorra, gaixoaldiak, eskolarizazioa...

Liburua atal laburretan egituratuta dago, bakoitzean gertakari edo pertsonaia baten inguruan mintzo zaigun gileak, bere lagunak, herriko eskalea,

jaunartzea, gaixoaldiak, gustuko arropak; hots, era guztietako oroitzapenak azaltzen dizkigu, XXI. mendeko irakurleari bitxiak eta, beharbada, sinesgaitzak zaizkion istorioak ere bai. Horiek guztiak Elena Odriozolaren ilustrazio xumeekin, liburuaren tonua eta estiloarekin bat eginik.

Begi bat kokotean, beraz, memoria liburu bat da, duela mende erdi pasa Euskal Herria nolako zen erakusten digun lana, baina baita irakurlearengan tristura, irribarrea, ezagutza eta jakinmina sortarazten dituen liburu ere; Igerabidek narrazio zaindu eta, era berean, arinaren bidez irakurlea eramaten baitu bere haurtzaroko txoko ilun eta argietara, alai eta tristeetara, bere historia kontatuta baina baita belaunaldi batena ere. ●



MUSIKA

Gorabeheratsua



OLBE

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Jose II.a austriar enperadorea *Nationalssingspiel* izeneko kultur proiektu batean tematu zen, eta obrak alemanieraz interpretatzeko konpainia bat sortu zuen, garai hartan italierazko opera baitzen nagusi.

Proiektuak ez zuen oso ibilbide luzea izan, baina lan magistralak sortu zituen, OLBERen eskutik Euskaldunan ikusi eta entzuteko aukera izan genuenaren modukoak.

Serralloko bahiketa Mozarten lehen *Singspiel* da. Genero hau zati kantatuak eta ahozko zatiak tartekatzean zetzan. Gaur egungo emanaldietan, batzuetan, ahozko testu asko ezabatu egiten dira. Hala ere, OLBERen proposamenean obra osoarekin gozatu ahal izan genuen.

Lan arina eta sarritan komikoa da, eta ez dauka Mozarten ondorengo operatan

aurkitutako pertsonaiaren edo sentimendu ilunen esplorazio sakonik. Beste obra garaikide batzuk bezala, opera honek Otomandar Inperioaren exotismoarekiko gustua du, inperio austriar-hungariarentzat mehatxu militarra izateari utzi zion inperioa hain zuzen ere.

Ikuspegi musikal hutsetik, kemenez beteriko obra da, aria ikusgarri eta zaillez beteak.

Euskaldunan ikusi eta entzun genuena aztertzeraz pasata, antzezenak ez zituen aurreikuspenak bete. Ez zen funtzio biribila izan, hainbat arrazoirengatik. Eszenografia apur bat eskasa izan zen. Ziur aski ideia ona zen, inguru *naif* bat birsortzea. Hala ere, sinpletasunak eta, agian, zuzendaritza eszeniko eraginkorrik ezak eragin zuten ikuskizunak, oro har, ez konbentzitzea.

FITXA

ZER: OLBEk antolatutako Mozarten 'Serralloko bahiketa' (Die Entführung aus dem Serail) opera.

NORK: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Operaren Abesbatzak.

NON: Bilboko Euskalduna Jauregian.

NOIZ: Urtarrilaren 20an.

Ahotsei dagokienez, pena handia izan zen Moises Marin tenorrek eztarriko arazo larri bat izatea. Ziurrenik ez zuen estreinaldian parte hartu behar, zailtasun handiak izan baitzituen erraza ez den rol bati ekiteko. Hain justu, abeslari hau beste tenore batek ordezkatu zuen ondorengo antzezenetan.

Denok gogoz espero genuen Jessica Pratten aktuazioa, Bilbon beti emanaldi gogoangarriak izan dituenena. Konstanzen interpretazioa indartsua eta tinbratua izan zen, eta koloraturak eta bizkortasunak eraginkortasunez gauzatu zituen. Baina beste aldi batzuetako magia eta distira falta izan zitzaizkion. Leonor Bonilla sopranoak, Blonderen rolean, eta Mikhel Atxalandabaso, Pedrilloaren rolean, profesionaltasun handia erakutsi zuten, beren roletarako ahots gokiak. ●

Requiem bat kritika musikalarari

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Urtarrilaren bukaera aldera ezagutu genuen notizia: *Pitch-fork*, behinola kritika musikaren Alfa eta Omega izan zen webgunea, GQ aldizkariaren barruan disolbatzea erabaki du proiektuaren jabeak, Condé Nast hedabideen multinazionalak. Egia da azken urteetan ez nuela hainbeste begiratzen, segur aski pop *mainstream*-era lerratu samarrak zebiltzalako –gehiegi nire gusturako–, harrapatu ninduten garaian zeukaten soinu bitxiagoen aldeko joera alde batera utzita; egia da, gainera, haien egun loriatsuetako iruzkin azidoak, dibertigarrienak sindudarik gabe, ez zirela azkenaldian hain ugariak; edo agian gutxiago bisitatzen nuenez, ez nituen hainbestetan aurkitzen? Tira, berdin da, izan ere: egia da, halaber, sekuentziak zer pentsatua ematen duela, horregatik ari naizela kontu honetaz, musikazaleen blog gisa hasitako zerbait mundu mailako erreferentzia bihurtzeraino hazi ondoren, hura erosi zuen korporazio erraldoiak ia lurperatu egin duelako, alegia.

Eta ez naiz joango “multinazionalak kritika musikala deuseztatu nahi dute” estiloko argudiobide konspietan barrena, justu gaur Ockhamen labana patrikan dudala harrapatzen bainazue eta esplikazio xumeagoa dauka kontuak segur aski: *Pitch-fork*-ek ez zituen lortu jabeak eskatzen zizkion klikak, merkatu-segmentuak edo dena delakoak. “Inpakturik” sortzen ez duenari gaur egungo negozioetan gertatzen zaiona

gertatu zaio; eta dagoeneko inork ez du denborarik hartzen ulertzeko *contradictio in terminis* galanta dela diskoen iruzkinei eskatzea normalean jo-puntuak edukitzen dituzten produktu kulturei eskatzen zaien emaitza bera.

Alegia: kritika ez da –“ez zen” esan behar genuke?– espektakuluaren parte, harekiko distantzia eszeptikoan egiten den zerbait baizik, horregatik da hain arraroa eta kasik kondaira bihurtzeraino gogoratua 1973an Big Star taldeak Memphisen lortu zuena: garaiko AE-Betako rock kritikari entzutetsuenak bilduta zeuden kongresu batean jotzeko eskatu zieten, igo zen Alex Chiltonen banda eszenatokira, hasi ziren riki-raka-pun-pun eta gertatu zen: kritikariak *dantzari* hasi ziren. Sekula ezta. Kritikariak gidatutako iraultzan ere ez litzateke horrelako zerbait pasako.

Total, panorama desolagarria –genitibo desolationis– geratzen ari dela kritika musikarentzat. Mundu anglosaxoiko arrain inportanteenetako bat horrela laurdenkatzea abisu argia da kate trofiko izaki txikiagoentzat: hemendik aurrera, hau gabe ere bizi beharko duzue.

Eta baten bat honezkero ariko da pentsatzen ez dela hainbesterako, bizi osoan entzun izan duela jendeak musika kritikei kasurik egin gabe, ea zer kezka klase den hau mundua dagoen bezala egonda. Ba, musikazale baten kezka, noski: Spotify eta tankerako plataformen algoritmo ez oso gardenek jada ordezkatu dute kritikaren funtzioa neurri handi batean. Entzuten duguna aukeratzea programa informatiko bati delegatu diogu. Ez dut, portzierto, musikarien aldetik kexa handirik entzun kontu hori dela-eta, segur aski zerbait berria publikatzean erosoagoa delako jarraitzaileen eta inguruan grabitatzaren duten influencerren laudorioak kontuan hartzea eta promoari laguntzen ez dion iritzi oro *hater*-tzat hartzea.

Asuntuaren alde perbertsoa, zera da: laster posible izango dela, dagoeneko ez bada behintzat, entzuten dugun musika gehiena ere adimen artifiziala erabiliz ekoiztea –kasu batzuetan hobekuntza handia izango da gainera, produktu musikalen fabrikazioan inteligentzia motaren bat erabili dela bermatuko baita, lehen ez bezala–. Tenore horretan, dena den, norbait gogoratuko da bazegoela jende gogaikarri samar bat, musika entzun, entzundakoaz pentsatu, eta galbahe-lan pixka bat egiten zuena. Berandu. ●





HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatuz, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozketasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoien ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisisa, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

EUSKADIKO
ITUN
BERDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko
Emakume Chef Oena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus